



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADIN GENERO- INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN HAUR ETA NERABEEI EMATEN ZAIEN ARRETARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA 2014KO EKAINA

Egilea:  **Save the Children**

Koordinazioa eta idazketa: Eva Silván Miracle

Ikerketa-lana eta idazketa: Andrea Gómez Jaramillo

Deskribatzaileak:

Haurtzarora, indarkeria, genero

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA 3. orr.
2. METODOLOGIA 4. orr.
3. ESPARRU TEORIKOA ETA ARAU-ESPARRUA 6. orr.
 - 3.1. GENERO-INDARKERIA 6. orr.
 - 3.2. HAURREN ESKUBIDEEN IKUSPEGIA 10. orr.
4. ARRETARAKO DAUDEN BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK 18. orr.
 - 4.1. GIZARTE-EREMUA 18. orr.
 - 4.2. EREMU JUDIZIALA 32. orr.
 - 4.3. EREMU POLIZIALA 37. orr.
 - 4.4. OSASUN-EREMUA 39. orr.
 - 4.5. HEZKUNTZA-EREMUA 39. orr.
5. ARRETA-PROZESUAREN BALIOESPENA 40. orr.
 - 5.1. PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA 41. orr.
 - 5.2. DETEKTATZEA ETA BIDERATZEA 42. orr.
 - 5.3. ARRETA 47. orr.
6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK 53. orr.
 - 6.1. ONDORIOAK 53. orr.
 - 6.2. GOMENDIOAK 54. orr.
7. BIBLIOGRAFIA 62.orr.

I. AURKEZPENA

Diagnostiko hau sortu da *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearen Arteko II. Akordioaren* Jarraipen Batzordearen Erakundearteko Talde Teknikoak Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak ikusgai jartzeko interesa duelako.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere biktimatzen hartzearekin eta haien laguntzearekin arduratuta dago Erakundearteko Talde Teknikoa, eta horregatik proposatu dute Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arretari buruzko diagnostiko bat egitea.

Emakundek eskatuta, 2013ko azaroan eta abenduan eta 2014ko urtarrilean ikerketa bat egin zuen Save the Children erakundeak, Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei zer arreta eskaintzen zaien jakiteko eta balioesteko, genero-indarkeriaren biktimatzen jotzea zer garrantzitsua den nabarmentzeko, eskubideen jabe direla onartzea ezinbestekoa dela agerian uzteko eta, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak ezartzen duen bezala (3. artikulua I. paragrafoa), haur eta nerabeei buruzko neurri guztiek haur eta nerabeen INTERES GORENARI erantzun behar diela azpimarratzeko.

Diagnostiko honek genero-indarkeriaren tipologia jakin batean jartzen du arreta: etxean gertatzen den indarkerian; emakumearen bikoteak erabiltzen du eta haien seme-alabei eragiten die. Azterketaren erdigunean kokatu ditu haurrak eta nerabeak, eta genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeek zerbitzuetan, programetan eta arreta-baliabideetan zer prozesu egiten duten identifikatu du.

Diagnostikoa egiteko, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko eskumena duten erakundeak kontsultatu dira, baita haur eta nerabeei arreta emateko eta haien babesteko eskumena duten erakundeak eta genero-indarkeriaren biktima diren haurrei eta nerabeei zuzenean edo zeharka laguntzen dieten profesionalak ere.

“Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik” Euskadiko Txostenaren garapena eta jarraipena da diagnostiko hau; 2012ko irailean aurkeztu zen txosten hori. Ikerketa honen bidez, Save the Childrenek ikusi zuen “genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben egoeraren inguruan gero eta kontzientziario handiagoa dagoen arren, lan handia” dagoela oraindik egiteko, haurren eskubideak kontuan hartuta erantzun egokia jasoko dutela bermatu nahi bada. Genero-indarkeria eta haurren arreta eremu desberdinetan dabilza oraindik, eta elkargunerako esparru gutxi dituzte. Genero-indarkeriaren aurkako borrokara bideratzen diren baliabideak emakume biktimak izaten dituzte helburu, nagusiki, eta haurren arretarako baliabideak, berriz, arrisku- eta babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeei zuzentzen zaizkie gehienbat. Ez dago garbi aurreikusita genero-indarkeriaren biktima diren haurrei laguntzea, salbuespenak salbuespen.



Diagnostikoak, aurretik aipatutakoa oinarri hartuta eta erreferentzia gisa hartuta beti desberdintasuna dela genero-indarkeriaren egiturazko kausa eta nerabearen interes gorena, zenbait hausnarketa egitea proposatzen du, genero-indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabeen arreta hobetzen laguntzeko.

2. METODOLOGIA

Diagnostiko honek 2012ko irailean aurkeztu zen “Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik” Euskadiko Txostena du abiaburu.

Elkarrizketa eta galdetegietatik, lege-agiriak aztertu eta berrikustetik eta gaiari buruzko ikerketatik atera da informazioa.

Azterketa dokumentalean hauek sartu dira:

- Kontzeptu-esparrua: Save the Childrenen jarrera eta ikerketak; berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko dokumentazioa.
- Arau-esparrua

Helburu hau izan dute elkarrizketek eta galdetegiak:

- Haurrak eta nerabeak eskubideen jabe direla agerian jartzea.
- Erakundeek genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei buruz zer ikuspegi duten identifikatzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeek Euskadiko baliabide eta zerbitzuetan zer ibilbide egiten duten ezagutzea, aztertzea eta agerian jartzea.
- Eskainitako laguntzak genero-indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabearen interes gorena kontuan hartzen duten identifikatzea.
- Hobetzeko proposamenak eta abian jar daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzea.

Instituzio eta erakunde hauek kontsultatu dira:

- Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa
- Arabako Foru Aldundia (Gizarte Ongizatearen Foru Institutua)
 - Gizartegintza alorra
 - Genero-indarkeriaren biktima direnentzako arreta
 - Adingabeak eta Familia alorra
- Bizkaiko Foru Aldundia, (Gizarte Ekintzako Saila).



- Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
- Hurren zerbitzua
- Gipuzkoako Foru Aldundia, (Gizarte Politikako Departamentua).
 - Gizarteratzea, Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta eta Gizarte Larrialdien Zerbitzua
 - Haurrak eta nerabeak babesteko Zerbitzua:
- Gasteizko Udala
- Gizarte Gaietako Saila eta Helduen Zerbitzua
 - Hurren eta Familia Zerbitzua
 - Gizarteratzeko Zerbitzua – Genero-indarkeriaren Biktimen Arreta.
 - Herritarren Segurtasun Saila
 - Udaltzaingoa
- Bilboko Udala
 - Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Atala
 - Genero-indarkeriaren Biktima izan diren Emakumeei Laguntzeko Zerbitzua
 - Gizarte Ekintza eta Etxebizitza Saila
 - Haurrak, Familia eta Desgaitasunak programa
- Donostiako Udala (Gizarte Ongizate Saila)
 - Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zerbitzua
 - Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzua
- Barakaldoko Udala Genero-indarkeriaren biktimak
- Busturialdeko Mankomunitatea
 - Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta
 - Hurren eta Familia Zerbitzua



- Osasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: Berritzegune Nagusia eta Hezkuntzako Ikusatzaitza
- Ertzaintza
- Gazteen Justiziako Zerbitzua
- Berriztu
- Agintzari
- Bilboko operadore juridikoak:
 - o Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitatea
 - o Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
 - o Lantalde psikosozial judiziala
 - o Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia

3. ESPARRU TEORIKOA ETA ARAU-ESPARRUA

3.1. Genero-indarkeria

Era batera edo bestera emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria haien osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa ageriko eta onartezina.

Emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko desberdintasun-egoeran ditu erroak emakumeen aurkako indarkeriak. Gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduen banaketa tradizionalak eusten dio desberdintasun horri, banaketa horrek gizonen azpitik jartzen baititu emakumeak.

Emakumeen aurkako indarkeria desberdintasun horren beste agerraldi bat ez ezik —segur aski larriena—, kontrol sozialerako tresna ere bada, funtsezkoa ezberdintasun horrek bere horretan iraun dezan eta betikotu dadin.

Patriarkatuaren arma nagusia da genero-indarkeria; emakumeen aurka emakume izateagatik beragatik baliatzen den indarkeria da, eta kontrolatzea du helburu; gizonezkoek emakumeengan duten edo izan nahi duten boterearen adierazpen handiena da.

Alde horretatik, beraz, genero-indarkeria da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen eta gizartean finkatzen diren erlazio asimetrikoen adierazpen larriena. Emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik gauzatzen den indarkeria da, haien erasotzaileek eskubiderik eta erabakitze gaitasunik gabekotzat jotzen dituztelako emakumeak. Familia barruan edo handik kanpo gertatzen da; gizonak erabiltzen du emakumearen aurka, eta botere-harreman desberdinak ditu oinarrian.

Nazio Batuen Erakundeak Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena onartu zuen 1993ko abenduaren 20an; adierazpen horren hitzaurrean esaten da sexuen arteko botere desberdintasunaren adierazpena dela emakumeen aurkako indarkeria, eta sistema patriarkal batean oinarritzen dela desberdintasun hori, zeinetan indarra erabiltzen den gizarte-mekanismo gisa emakumea kontrolatzeko eta mendea edukitzeko.

“Emakumea gizonaren mendeko izatera behartzen duen oinarritzko gizarte-tresnatzat” jotzen du emakumearen aurkako indarkeria.

Genero-arrazoiengatiko diskriminazioan oinarritzen den emakumeen aurkako indarkeria (fisikoa, psikologikoa edo sexuala), gizarte-arazo oso larria izateaz gain, gizartean gertatzen diren giza eskubideen urraketa guztietatik ohikoena eta gehien ezkututzen dena ere bada, seguruenik.

Genero-indarkeriak bizi eskubidea, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, torturarik, zigor edo tratu krudelik, ankerrik edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea, berdintasun eta diskriminazio ezaren eskubidea, askatasunez mugitzeko eskubidea eta biltzeko eta elkartzeko eskubidea urratzen ditu.

Era berean, baita nortasunerako, maitasunerako, bakerako, garapen pertsonalerako, babeserako, gizartean eta politikan parte hartzeko, adierazpen-askatasunerako eta osasun fisiko eta mental ezin hobea izateko eskubideak ere.

Hala bada, biktima den emakumea ezin da sekula subjektu pasiboa gisa kokatu, edo ezin zaio jasandako ondorioei aurre egiteko eta bere onera etortzeko duen gaitasuna gutxitu. Genero-indarkeriak emakumearen giza eskubideak urratzen dituzenez, Estatuaren betebeharra da emakumea ahaldundu eta bere onera etor dadin beharrezkoa duen arreta guztia ematea, bere eskubide guztiak gauza ditzan eta haren seme-alabak babestuta egon daitezen.

Diagnostiko honek genero-indarkeriaren eredu jakin batean jartzen du arreta: etxean gertatzen den indarkerian; emakumearen bikoteak edo bikote ohiak gauzatzen du eta haien seme-alabei eragiten die.

Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben egoera, berriz, bi arau-eremuren erdian geratzen da: genero-indarkeriarenean eta haurrak indarkeriatik babestearenean. Bi arau-eremu horiei arreta handia jarri die nazioarteko, Europako eta estatu askotako agintaritzek azken hamarkadetan.

Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak, bere horretan, ondorio nabarmenki negatiboa du neska-mutilen bizitzan, ongizatean eta garapenean. Ez dute zertan zuzenean nozitu, biktima bilakatzeko.

Haien amen aurkako indarkeria bizi izateak edo gizonaren eta emakumearen arteko **desberdintasuna** indarkeria erabilia adierazten den inguru batean hazteak haien ere biktima bilakatzeko dituzte. Gainera, arrisku-faktore bat ere bada, botere-harreman desberdinetan, diskriminatzaileetan eta bortizketan oinarritutako portaera-ereduak ikasten eta kopiatzen direlako. Sarri askotan, gainera, administrazio-prozeduren eta, noizean behin, prozedura judizialen tartean harrapatuta geratu ohi dira haurrak, eta gehienetan, gainera, ez dira haien beharretara egokituta egoten. Estatuaren eta eskumena duten administrazioen betebeharra da egoera horietan guztietan esku hartzea eta emakumeen eta neska-mutilen babes eta arreta bermatzea.

Genero-indarkeriaren aurka babes osoa emateko neurriak buruzko 2004ko Legea aurrerapen handia izan zen genero-indarkeriaren tratamendu juridikorako, nazioarte mailan onartu baita. Jardunbide egokitzat jota dago NBERen idazkari nagusiaren emakumearen aurkako indarkeriaren datu-basean, zehazki ikuspegi juridikoaren barruko etorkizun handiko jardunbideen alorrean.

Legeak genero-indarkeriari buruzko definizio zabala ematen du; hor barruan sartzen ditu eraso psikologikoa eta sexuala, mehatxua, hertsadura eta askatasuna kentzea. Nabarmenezkoa era askotako neurriak ezartzen dituela legeak, hala nola prebentziozkoak, hezkuntzaren alorrekoak, babes-neurriak eta asistentziakoak, eta zehapen berriak ere ezartzen ditu eraso-egileentzat.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundearen arteko EAEko akordioa –2001ean sinatu zen– inflexio-puntu bat izan zen tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeentzako babesaren eraginkortasunari eta arretaren kalitateari dagokienez.

Ondoren, akordio hori arreta hobetzeko sortu ziren beharretara egokitzeko, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Akordioa sinatu zen 2009ko otsailean*. Biktimei arreta ematen dieten arloetako (osasuna, poliziala, judiziala, soziala, hezkuntza) talde profesionalen jardunari dagokionez, EAE osorako protokolo homogeneo eta koordinatua ezartzen du.

Adingabeen interesak defendatu behar direla ezartzen du erakundearteko II. Akordio horrek printzipio nagusien artean. Alde horretatik, biktimek beren kargura dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Hala ere, umeen eta nerabeei interes gorenari begiratu beharko zaio beti, haurrei eta nerabeei arreta eta babes emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak xedatzen duen bezala.

Ikuspegi historikotik, onartzekoa da agenda politiko demokratiko guztietan dagoela emakumeen aurkako indarkeria erroztik ezabatzeko ideia emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren lanari esker, eta aurrekaririk gabeko bilakaera izan dutela

ordenamendu juridikoak, instituzionalak eta egoera horretan dauden emakumeei zuzendutako berariazko baliabideek.

Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Eusko Jaurlaritzaren Gida Planak (2013) emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun horiek gainditu daitezzen nahi du, eta genero-indarkeria eta sexismoak eragindako indarkeria-mota guztiak deuseztatzen lagundu nahi du, hezkuntzaren eremutik.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da azpimarratzea eskolak leku pribilegiatua eta estrategikoa duela, gizartea berdinzalegoa eta zuzenagoa izan dadin laguntzeko.

VI. Planaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, hau jotzen da emakumeen aurkako indarkeriaz: «sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan». Plan honetan proposatutako gainerako jarduera-eremuetan bezalaxe, indarkeriaren kontrako borroka eraginkorra estu-estu lotuta dago gizartearen balio-aldaketarekin. Hori horrela, eraldaketa hori funtsezkoa da indarkeria ezabatzeko eta behar bezala eta behin betiko konpontzeko.

Europako, estatuko eta autonomietako erakunde politiko eta gobernu askok onartu du indarkeria-mota horren lekuko diren haurren egoerari modu zehatzean heldu behar zaiola.

Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Hitzarmenaren zirriborroa da etxean genero-indarkeriaren lekuko diren haurren egoerarekiko gero eta sentikortasun handiagoa dagoela adierazten duen adibide nabarmena. Orain gutxi argitaratu du Haurraren Eskubideen Batzordeak. Zirriborro horretan berariaz jasotzen da indarkeria-mota horren lekuko diren haurrak babestu egin behar direla eta behar duten laguntza eman behar zaiela.

Europako Kontseiluaren 1714/2010 Ebazpenak onartzen du amak jasandako indarkeriaren lekuko izatea haurraren kontrako abusu psikologikoa dela eta ondorio oso larriak izan ditzakeela, horrenbestez, harengan. Horregatik, egoera hori bizi duten umeek ekintza espezifikokoago bat behar dute, askotan ez baitira haien biziaren esperientziak eragindako ondorio psikologikoaren biktima gisa onartzen, ez eta etorkizuneko ustezko biktima edo indarkeria errepikatzea dakarren kate bateko elementu gisa ere.

1905/2010 Gomendioak haur horiek arrisku-egoeran bizi direla nabarmentzen du, eta erabakiak hartzen eta jarduerak egiten dituzten eremu guztiek egoera horiei aurre egiteko berariazko ekintzak indartu behar dituztela, kontuan hartuz genero-indarkeriak berariazko eragina izaten duela haurren etxeetan.

Zehazki, egoera hori dela eta haurrek prozesu administratibo eta judizialean parte hartu behar badute, maila guztietan lan zehatza egitea gomendatzen da, prozesu horiek haurren heldutasunera egokitzeko eta, horrela, parte hartzeko eta entzunak izateko eskubidea bermatuta izateko.

Bestetik, Emakumeen Aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta Borrokatzeko ad hoc Batzordeak (CAHVIO) kontuan hartu behar du genero-indarkeriaren lekuko diren seme-alaben egoera, Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena egiteko. 2011ko urtarrilaren 13an aurkeztu zen genero-indarkeriari buruzko Europako hitzarmen horren lehenengo bertsioa Estrasburgon; espezifikoki indarkeria horren lekuko diren haurrei zuzendutako babes-neurriak eta laguntza-neurriak aurreikusten dira hor. Haurren eskubideak bermatzeko eta haien beharrak asetzeko nahitaezkoak diren neurri guztiak hartzeko eskatzen zaie estatu guztiei, proposatzen den testu horretan. Neurriek, jakina, haurren adinerako egokia den laguntza psikosoziala izan behar dute oinarri, haren interes gorenari erantzunez beti.

Horrenbestez, indarkeriaren biktima den emakumearen eta haren seme-alaben eskubideak urratzen direla hartu behar da kontuan familia eremuko genero-indarkeriako egoerei behar bezala erantzuteko, indarkeria horren eraginpean hazita haiek ere biktima bihurtzen direlako.

3.2. Haurren eskubideen ikuspegia

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa da diagnostiko honen arau-erreferentzia nagusia. Nazioarteko komunitate guztiak berretsia, mundu osoan onartuta dagoen haurren eskubideen katalogoa da, eta estatuak eskubide horiek errespetatzeko, bermatzeko eta benetako bihurtzeko betebeharra dute.

Konbentzioak lau funtsezko printzipio ezartzen ditu; horien bidez zuzenduko dira haurren alorreko ekintza instituzional guztiak. Horretaz gain, oinarriko beste bi premisa ere hartu behar dira kontuan printzipio horiek ulertzeko: eskubide horiek guztiak zati ezinak direla eta elkarrekin erlazionatuta daudela, eta gurasoek, familia-inguruak, erakundeek eta gizarte osoak dutela erantzukizun partekatua haur guztiak babestuta egongo direla eta haien ongizatea zainduko dela bermatzeko.

Diskriminaziorik ezeko printzipioa

(Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 2. artikulua)

"Estatu alderdiek Konbentzio honetan adierazitako eskubideak errespetatuko dituzte, eta ziurtatuko dute konbentzio hau aplikatzen zaiela euren jurisdikzioaren mende dauden haurrei, inolako bereizketarik gabe, haurren, gurasoen nahiz euren lege-ordezkarien arraza, larrukolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, ezintasun fisikoak, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide".

Haur guztiek beren eskubideak gauzatzeko eta bermatuak izateko aukera izan behar dute inolako diskriminaziorik jasan gabe. Horrek esan nahi du ezin direla diskriminatu ez legetan ez politika publikoak diseinatu eta implementatzerakoan, eta, halaber, adierazten du zuzenean lagundu behar zaiela haien eskubideak urratzen direnean.

Interes gorena

(Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 3. artikulua)

“Haurrei dagokienez, gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio-agintariak edo legegintza-organismoek hartzen dituzten neurri guztiek haurren interes gorena zaintzea izango dute lehendabiziko ardura”.

Familia-giroa ezin hobea da haurren garapenerako eta ongizaterako. Genero-indarkeriako egoeretan eten egiten da adierazpen hori, eta agintaritzaren administratibo eta judizialek esku hartu behar izaten dute. Horien jardunak haur bakoitzaren interes gorena zein den identifikatzen jarri behar du arreta, eta interes gorenaren arabera jarduteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte.

Partaidetza-printzipioa

(Adingabeek entzunak izateko duten eskubidea. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 12. artikulua)

“Estatu alderdiek haurrei eskubidea bermatuko diete, askatasunez euren iritzia emateko, haurrengan eragina duten gai guztien inguruan, betiere, haurrak gai badira iritzi hori askatasunez emateko; haurren iritzia behar bezala kontuan hartuko dira, haurren adinaren eta heldutasunaren arabera.

Horretarako, haurrei modu berezian emango zaie aukera, eurek esan beharrekoa entzun dadin, haurrei buruzko prozedura judizial eta administratibo guztietan, zuzenean nahiz ordezkariaren bidez edo organo egoki baten bidez, lege nazionalako prozedura-arauekin bat etorritik”.

Genero-indarkeriaren ohiko ondorioetako bat izaten da prozedura administratiboak eta judizialak abian jartzea biktima babesteko neurri egokiak ezartzeko. Indarkeria horren biktima diren adingabeak dauden heinean, agintaritzek neurriak hartu behar dituzte ahal den guztietan haur horiek esateko dutena entzun dadin eta haien iritzia kontuan har dadin, haur bakoitzaren interes gorena zein den erabakitzeko.

Estatuek duten betebeharrak hau betetzeko, ezinbestekoa da gailuak eta prozedura judizialak haurren beharretara egokitzea, kontuan hartuz beti haien heldutasuna eta egoera bereziak.

Bizitzeko, bizirik irauteko eta garatzeko eskubidea

(Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 6. artikulua).

“Estatu alderdiek aitortzen dute haur guztiek berez dutela bizitzarako eskubidea.

Estatu alderdiek ahalik eta gehien bermatuko dute haurren bizi-iraupena eta garapena.”

Kontuan hartuz genero-indarkeriak haurren garapen osoan eragiten duela, estatuek ahal duten guztia egin beharko dute egoera hori bizi izan duten haurrak babesteko, eta arreta berezia eskaini beharko die; horretarako, haurrak beren onera etortzen lagunduko duten neurri

positiboak bultzatu beharko dituzte eta, aldi berean, saiatu beharko dira biktima bihurtu dituen indarkeriagatik ez estigmatizatzen.

Indarkeriaren biktima diren haurrak

(Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua)

3. “Estatu alderdiek legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurri egoki guztiak hartuko dituzte, haurrak babesteko kalte edo abusu fisiko nahiz mental, arretarik eza edo zabarkeriazko tratatu, tratatu txar eta abarretatik (...).
4. Babes-neurri horiek bere baitara bildu beharko lituzkete, egoki denaren arabera, prozedura eragingarriak, gizarte-programak ezar daitezzen, haurrei eta haurrak zaintzen dituztenei eskaintzeko behar adinako laguntza, bai eta bestelako prebentzio-mota batzuk ezar daitezzen ere, eta, berebat, haurrei dagokienez, arestian aipatu tratatu txarren kasuak daudenean, halakoak identifikatu, jakinarazi, erakunde baten esku utzi, ikertu, tratatu eta begiratu daitezzen, eta, egoki denaren arabera, esku-hartze judiziala izan dadin.”

Mundu osoan gertatzen den giza eskubideen urraketa ohikoena da haurren eta emakumeen kontrako indarkeria, baita Europan ere. Eta etxean, familiako harremanen esparruan eta gizartearen bistatik kanpo geratzen da usuenen indarkeria mota hori, bai fisikoa bai psikologikoa.

Halaxe diote NBEk eta Europako Kontseiluak egindako zenbait ikerketek: etxean genero-indarkeriako egoerak bizi dituzten haurrak indarkeria horren biktima dira, ondorioak zuzenezuzenean pairatzen dituztelako, ondoren zehaztuko diren ondorio fisiko eta emozionalak ez ezik, botere-desberdintasuna izan den eremu batean eta ama gizon baten indarkeriazko portaeraren mende egon den inguru batean bizi eta heztetik eratorritakoak ere bizi dituztelako, indarkeria hori errepikatzen duen kateko elementu bihurtzen baititu egoera horrek.

Haurren aurkako indarkeriari buruzko munduko txostenak honela definitzen du haurren aurkako indarkeria:

“Indarra edo boterea nahita erabiltzea, modu errealean edo mehatxu moduan, eta ondorio hauek izatea edo eduki ahal izatea: lesioak, kalte psikologikoa, garapen eskasa, gabeziak bai eta heriotza ere”.

Txosten horretan bertan agerian jartzen da haurrek jasaten duten indarkeria motarik okerrenetako bat dela etxeko indarkeria, eta ondorio larriak izaten dituela haurren garapenerako.

Kalkulatzen da, urtero, 100 eta 200 milioi haurrek bizi dutela ohikotasunez haien guraso edo zaintzaileen arteko indarkeria; normalean, gurasoen arteko edo beren amen eta haren bikotearen arteko liskarrak izan ohi dira (...). Haurrek kalte psikologikoa edo fisikoa jasan dezakete familiako beste kide baten aurkako indarkeriaren lekuko izateagatik. Azterketa ugari adierazten du larriki eragin diezaiekeela bizitza osoan haurraren ongizateari, garapen



pertsonalari eta gizarte-interakzioari denbora luzean indarkeria horren lekuko izateak. (Haurren aurkako indarkeriari buruzko Paulo Sergio Pinheiro aditu independentearen txostena, Nazio Batuak, 2006).

Nazio Batuen adituaren arabera, haurren aurkako indarkeriaren ondorioetan sartzen dira, bai pertsonarengan izaten duen berehalako eragina, bai haurtzaroan, nerabezaroan eta helduaroan izan den kaltea:

“Etxe- eta familia-eremuan izaten den indarkeriak betiko iraun dezaketen osasun- eta garapen-ondorioak izan ditzake. Beste pertsona batzueganako konfiantza gal dezakete, zeina funtsezkoa izaten den garapen normalerako. Haurtzarotik, familia-harremanen bidez, konfiantza izaten ikastea haurtzaroko funtsezko parte bat da, eta estuki lotua dago maitasun- eta enpatia-gaitasunarekin eta etorkizuneko harremanen garapenarekin. Eredu zabalago batera jotzen badugu, indarkeriak garapen pertsonalerako izan daitezkeen gaitasuna galarazi dezake, eta kostu handia eragin gizarte osoari”.

Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeekin egiten den lanean, haien gizarte-arretan, arreta psikologikoan eta juridikoan egiten dira ahaleginak, baina haien seme-alabei dagokienez, eskaintzen zaien arretan aurrerapenak egin badira ere, oraindik pentsatzen da ama bere onera etortzen denean haurrak ere bere onera etorriko direla; horrenbestez, biktimak ikusezin eta ahaztu izaten jarraitzen dute, eta haientzat baliabide espezifiko eta egokirik gabe jarraitzen dugu.

Genero-indarkeriaren mende egoteko moduak

Haurrak genero-indarkeriaren eraginpean egoteko modu bat baino gehiago dago. Kontzeptuaren definizio inklusiboenetako batetik begiratuta, genero-indarkeriaren biktimak den haurtzat jo dezakegu indarkeria-mota hauetakoren baten eraginpean dagoen hura:

- Perinatala: gizonak haurdun dagoen emakumearen aurka erabiltzen du indarkeria.
- Tartean sartzea: haurrak jasaten du indarkeria ama babesten saiatzen denean.
- Biktimizazioa: haurra indarkeria psikologikoaren edo fisikoaren xede bihurtzen da, haren ama kolpatzen ari direnean.
- Parte hartzea: ama gutxiesten edo hari balioa kentzen kolaboratzen du haurrak.
- Aurrez aurreko lekukotasuna: haurrak aita amari erasotzen ari dela ikusten du.
- Entzutea: beste gela batean dagoela nabaritzen du eraso.
- Erasoaren berehalako ondorioak bizitzea: ama zauritu egin dutela ikusten du, eraso egin dioten lekuan nola geratu den edo polizia edo anbulantzia iritsi direla ikusten du.
- Ondorioak nabaritzea: amaren sintomak bizitzen dituenean, gurasoen banaketa gertatzen denean edo etxebizitzaz aldatu behar duenean, adibidez.

- Gertatutakoaz ari direla entzutea: helduen arteko elkarrizketak entzuten ditu.
- Zer gertatu den ez jakitea: haurrak aurrean ez zeudela gertatu da eraso.

Horietako zenbait kategoria batera bizi ditzake haurrak indarkeriazko gertaera bakar batean, bai eta indarkeria bizi duen denboran zehar ere.

Amak tratu txarrak jasaten dituen familia batean bizitzeak esan nahi du zapalketa- eta kontrol-egoeretan bizitzea eta botere-gehiegikerian eta desberdintasunean oinarritzen den eredu baten bizitzea (Children who Witness Domestic Violence, Carina OHLSONen txostena Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarrari).

Genero-indarkeriak haurren dituen ondorioak

Garapen emozional eta sozial egoki bat izateko, ezinbestekoa da indarkeriarik gabeko lotura afektiboak sendotzea. Haurren garapenean ondorioak izaten ditu indarkeriak epe labur, ertain eta luzean, eta umearen bizitzak dituen eremu desberdinetan ager daitezke.

Cunningham eta Bakerrek (2007) diote genero-indarkeriaren biktima direla amaren aurkako gehiegikeriak eta behartze-kontrola ikusten, entzuten edo dagoela badakiten edo hauteman dezaketean haurrak. Hartara, era askotako ondorioak jasan ditzakete: kalte psikologikotik hasi eta heriotzaraino, tartean direla ondorio fisikoak, hezkuntza-, gizarte-, harreman- eta portaera-ondorioak edo gurasoekiko loturari berari eragiten diotenak.

80ko urteetatik, etxeko indarkeriaren lekuko izan diren haur eta haurtxoengan antzeman izan diren sintomak jaso dira: negarra, antsietatea, tristura eta elikaduraren eta loaren nahasmenduak.

Adituek egiaztatu eta nabarmendu dute, halaber, sintomatologia arindu egiten zaiela haurrei indarkeriaz jarduten den etxetik aldentzen dituztenean.

Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak izan ditzakeen ondorioak faktore batzuen arabera dira, eta kontuan hartzekoak dira: indarkeria-mota, haren intentsitatea eta iraupena eta haurren adina, sexua, zer mailatako eraginpean dagoen eta haurren garapen psikikoa eta emozionala.

Haurren garapenerako dituen ondorioak

Etxean genero-indarkeriaren eraginpean egoteak ondorio negatiboak ditu haur eta nerabeentzat, haien adina edozein dela ere.

Haurdun egoten dira genero-indarkeriaren biktima diren emakume asko, eta indarkeria horren inpaktuaren ondorioak jasaten ditu haurrak. Kasu horietan, haurrak ez dira hain osasuntsuak izaten, edo portaera-aldaketa asko izaten dituzte, hala nola suminkortasuna, loaren nahasmenduak eta beldurrak. Tratua txarrak jasan dituen emakumeak estresa izan badu, haurrak beldurtiagoak izango dira.

Genero-indarkeria traumatikoak berezko abortuak eragin daitezke, haur jaioberriak pisu gutxiago izatea edo fetua hiltzea erditzerakoan, besteak beste.

Haurrek eta nerabeek bizi duten indarkeriak izaten dituen ondorioak, berriz, beste hauek dira:

Sozializazio-arazoak.

- Isolamendua.
- Ziurtasunik eza.
- Oldarkortasuna.
- Gizarte-gaitasunak gutxitzea.

Depresio-sintomak.

- Negarra.
- Tristura.
- Autoestimu gutxi.
- Isolamendua.

Beldurrak.

- Beldur ez espezifikoak.
- Zerbait txarra gertatuko denaren “aurreustea”.
- Hiltzeko beldurra.
- Ama galtzeko beldurra.
- Aita galtzeko beldurra.

Loaren nahasmenduak.

- Amesgaiztoak.
- Bakarrik lo egiteari beldurra.
- Gaueko izuak.

Sintoma erregresiboak.

- Enkopresia/enuresia.
- Atzerapena hizkuntza-garapenean.
- Haien adina baino haur txikiagoen eran jardutea.

Eskolan integratzeko zailtasunak.

- Ikasteko arazoak.
- Kontzentrazio- eta arreta-zailtasuna.
- Eskola errendimendua gutxitzea.
- Beste haur batzuekin partekatzeko zailtasunak.

Erantzun emozionalak eta portaerazkoak.

- Amorrua.
- Bat-bateko umore aldaketak.
- Antsietatea.
- Babesgabetasun sentrazioa eta mundua mehatxuzko zerbait balitz bezala bizitzea.
- Erru-sentimenduak (bere gurasoen arteko gatazken edo gertatutakoaren edo indarkeria saihesteko ezer egin ez izanaren erantzule sentitzea).
- Adierazpen-zailtasuna eta emozioak kudeatzeko zailtasuna.
- Indarkeriazko egoera ukatzea edo bizitakoari garrantzia kentzea.
- Sufrimendua eta eraso normalizatzeko joera izatea, hau da, harremanak izateko modu naturalizat hartzea.
- Eredu biolentoetatik ikastea eta haien errepikatu edo kopiatu ahal izatea, bai biktimarena bai erasotzailearena, genero-rol desegokiak barneratzen dituelako.
- Gurasoen arteko etengabeko gatazken eraginpean egonda, harreman gatazkatsu gehiago eta adikzioak izateko arrisku handiagoa du nerabeak.
- Etxean izaten den indarkeriarekin erlazionatutako estresagatik, arrisku- eta ihes-portaerak eta etxe barruan indarkeriazko portaerak izaten has daiteke nerabea.
- Etxetik alde egitea.
- Gurasoen arteko harremanak, gainera, eragin handia izan dezake nerabeek beren lehen harreman sentimentalak oinarritzeko moduan.

Trauma osteko estresaren sintomak.

- Insomnioa.
- Amesgaizto errepikatuak.
- Fobiak.
- Antsietatea.
- Trauma berriz bizitzea.
- Disoziaziozko nahasmenduak.
- Haurrak guraso bihurtzea.
- Anai-arreba gazteenganako guraso-rola eta rol babesleak hartzea beren gain.
- Ama babesteko guraso-rola hartzea.

Muturreko kasuetan, heriotza izaten da indarkeriazko historia hauen amaiera.

Adierazi berri dugun indarkeriak izaten duen eraginaren ondorioak, halaber, desberdinak dira biktima den haurraren adinaren arabera. Garrantzitsua da, horrenbestez, adina kontuan hartzea, eta genero-indarkeriaren eraginpean egoteak haurrengan duen eragina desberdintzea:

- Jaioberriak eta haurtxoak: suminkortasuna, lo egiteko eta jateko arazoak, larritasuna, ulertzeko zailtasuna.
- Eskolaurrea: oldarkortasuna, jokabide-arazoak, beldurra, antsietatea, tristura, amarenganako kezka, trauma osteko estresa, afektibitate-zailtasunak, jarduera handia,

arreta erakartzeko saiakerak, errudun-usteak, bere berdinekin edo helduekin jarduteko arazoak, amarekin edo zaintzaile nagusiarekin zehaztu gabeko harremana izatea.

- Eskola-adina: oldarkortasuna, jokabide-arazoak, desobeditzea, beldurra, antsietatea, depresioa, autoestimua gutxi, errudun-ustea, lotsa, trauma osteko estresaren nahasmenduak, errudun sentitzea, eskola-errendimendurako arazoak, indarkeriaren aldeko jarrerak, bere berdinekin harreman gutxiago izatea eta kalitate okerragokoak.
- Nerabeak: jokabide biolentoak, ihesak, delinkuentzia, depresioa, nor bere burua hiltzeko ideiak izatea, trauma osteko estresaren nahasmenduak, substantzia gehiegi hartzea, indarkeriaren aldeko jarrerak izatea, jokabide biolentoak izaten diren (bikote) harremanak edukitzea.

Bizi izan duten edo bizitzen ari diren indarkeriari garrantzi gutxi ematen saiatzen dira nerabe asko, horrek eragiten dien minetik babesteko. Oso gutxi hitz egiten dute gertatzen ari denaz edo emozionalki bizi duten babesgabetasun sentimenduaz, eta, horrenbestez, zaila egiten zaie gertatzen ari zaienari esanahi edo azalpen bat ematea. Ama “bereizi” egin daiteke indarkeriatik, eta, beraz, indarkeriazko gertaerarik ez dagoenean ezer txarrik gertatu ez balitz bezala jardun dezake amak.

Amak bere seme-alabari gertatutakoak ez diola eragin pentsatzeak edo haurrak edo nerabeak ondoeza ez adierazteak edo gertatutakoaz hitz egin nahi ez izateak ez du esan nahi, halaber, genero-indarkeriak eragin ez dienik; horregatik, nahitaezkoa da jarraipen sozio-emozionala egitea genero-indarkeriaren biktime diren haur eta nerabeei, behar duten babesa emateko.

Haurrek eta nerabeek nolako baliabide emozional eta pertsonalak dituzten, gurasoek gaitasunez erantzuten duten eta gurasoek egoera hori nola bideratzen duten, halakoa izango da indarkeriak izango duen eragina eta ondorioak.



4. ARRETARAKO DAUDEN BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

4.1. Gizarte-eremua:

Foru aldundiek arrisku larrian eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak babesteko eskumena dute, eta, era berean, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programa berezituak gauzaten dituzte. Bestetik, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalek etxeko indarkeria jasan duten biktimei laguntzeko baliabideak edo zerbitzuak izaten dituzte, eta biztanle gutxiagoko udalek ere, zenbaitetan mankomunitateetan bildurik, izaten dituzte berariazko baliabide batzuk. Hala ere, gehien-gehienetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dute lehenengo gizarte-arreta; EAEko udalerrri guztietan ematen da arreta hori, biztanle-kopurua edozein izanik ere.

Jarraian, hiru foru aldundiek eta hiru lurraldeetako hiriburuek zer baliabide eskaintzen dituzten azalduko da (garrantzitsuenak). 5. puntuan, arreta-baliabideen balioespena izenekoan, beste udalerrri eta mankomunitate batzuei buruzko informazioa jaso da, eta 6. puntuan, berriz, ondorioak eta gomendioak egin dira.

ARABA

Araban, **Gizarte Ongizatearen Foru Institutuak** kudeatzen ditu, **Gizartegintza alorraren** bidez, **Arabako Foru Aldundiak** genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen dizkien zerbitzuak. Genero-indarkeriaren biktima den emakume bati laguntzen zaion guztietan, haren seme-alabak ere biktimatzat jotzea izaten da beti abiaburua, eta, horrenbestez, genero-indarkeria izan den inguruetan detektatzen diren neska-mutil guztiak indarkeriaren biktima zuzen gisa artatu beharko lirateke.

Hauek dira emakumeei eta haien kargura dauden adingabeei laguntzeko **foru-baliabideak**:

Abegi-etxeak. Haurrei dagokienez hauek dira helburuak:

- Beren amekin egoteko aukera ematea, aldi baterako ostatu-mota hau ematen zaienean.
- Amaren eta seme-alaben segurtasuna eta osotasun pertsonala.
- Gizarte eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta neurria egindako gizarte-konpainiako zerbitzua eskaintzea.

Gizarte eta hezkuntza-arloko eta konpainia-zerbitzua eskaintzeko programa; abegi-etxean daudenei eskaintzen zaie, hara sartu aurretik, bai eta genero-indarkeriaren biktima izateagatik bikote-harremanarekin bukatzea erabaki baina oraindik beren etxeetan jarraitu edo beste batera aldatu diren emakumeei (eta harekin batera datozenei) ere. Hauek dira helburuak:

- Neska-mutilei jarri beharreko hezkuntza-jarraibideak aztertzea eta ezartzea (banakako arreta-programa baten bidez eta familia barruko esku-hartzearen bidez ematen zaie arreta).

- Abegi-etxeko prozesuan, bikote hausturan, salaketan edo esku-hartze judizialean haiekin egotea eta laguntzea.
- Abegi-etxean dagoen emakumeari ingurua ezagutzen laguntzea, ikastetxez aldatzeko egin beharreko kudeaketetan laguntzea –eta beharrezko duen informazioa ematea–, abegi-etxetik gertueneko osasun-etxera bideratzea, aisialdiko baliabideak eskuratzen laguntzea –eskola-oporretarako– eta abar.
- Haurraren ongizatea gainbegiratzea eta haren bilakaeraren jarraipena egitea.
- Banaketarekin eta tratu txarrekin erlacionatutako estres-faktoreek duten eragina gutxitzea.

Haurrek bi baliabide horiek **eskuratze**ko, amak (edo tutoreak) egin behar du aurrez eskaera oinarrizko gizarte-zerbitzuan. 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerrietako herritarrei zuzendutako baliabideak dira. Gasteizko herritarrek bertako udalak eskaintzen duen harrera-baliabideen sarea dute.

Laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa emateko foru-zerbitzuak genero-indarkeriako egoerentarako emakume biktimei, erasotzaile diren gizonei, adingabeei eta zeharkako biktimei arreta psikologikoa emateko zerbitzua du. Zerbitzu hori Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren baten bidez sortu zen. 2006tik, adingabeekin esku hartzeko berariazko programa bat dago: biktimei diren **adingabeei laguntza psikologikoa emateko programa**. Gehienetan, amaren bidez ematen da, zerbitzuan arreta ematen baitzaio. Arreta Psikologikorako Zerbitzuak babesgabetasun-egoeran egon daitezkeen adingabeak direla susmatzen badu, Adingabeen eta Familiaren Foru Zerbitzuari emango dio horren berri. Gerta daiteke babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak Gasteizko Udalaren Haurren Zerbitzuak edo Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Adingabeen eta Familiaren arloak bideratzea.

Abiaburu gisa kontuan hartzen da, gurasoekin esku hartzea nahitaezkoa izaten den arren, haurrekin terapia egitea ez dela beti beharrezkoa edo egokia izaten. Tratu txarrak desagertzen direnean, biktimei diren adingabeek askotan ez dute sintoma psikopatologikorik agertzen, eta, horrenbestez, tratamendurik ez dutela behar erabakitzen da. Gainera, zenbait kasutan, terapiak bigarren biktimizazio bat eragin dezakeela uste da.

Arreta psikologikoak bitarteko hauek ditu:

- **Amari arreta psikologiko zuzena eskaintzea** (gehienetan); amari aholkuak ematen zaizkio adingabeari baldintzarik egokienak eskaintzeko.
- **Adingabeari arreta psikologiko zuzena ematea**, emozionalki bere onera etor dadin, kognitiboki berriz ere egitura dadin eta portaera alda dezan.
- **Erasotzaile diren gizonei arreta psikologikoa ematea**. Gehienetan, arreta psikologikoa jaso duten emakumeek bideratzen dituzte, eta prozesu terapeutiko bat abiaraztea onartzen du, bere seme-alaben mesederako.

- **Bigarren mailako biktimei arreta ematea;** hor daude egoerarekin erlazionatutako familiako beste kide batzuk, hala nola adinez nagusi diren seme-alabak.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez, beste erakunde batzuen bidez (Osakidetza, Ertzaintza, epaitegia, Adingabeen eta Familiaren arloa...) edo amaren edo adingabearen arduradunaren bidez eskuratzen dira zerbitzu hauek.

Hitzartutako beste baliabide batzuk:

- Gizarte Larrialdietako udal zerbitzua; Gasteizeko Udala.
- Loremaitian zaintzen dira adingabeak, AGLE elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez; laguntzarik gabeko emakumeen seme-alabak zaintzen dira hor, amek indarkeria-egoerarekin erlazionatutako kudeaketak egiten dituzten bitartean.
- Genero-indarkeriaren arloan koordinazio-lana egiten da Amurrioko Udalarekin. Abegi-etxera joateko prozedura eta udalerrirako erakunde arteko protokolo bat egiteko eta haren jarraipenerako lankidetzaz sartzeko dira hor.
- Genero-indarkeriaren arloan koordinazio-lana egiten da Laudioko Udalarekin. Abegi-etxera joateko prozedura eta udalerrirako erakunde arteko protokolo bat egiteko eta haren jarraipenerako lankidetzaz sartzeko dira hor.

Udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuaren eta arreta psikologikorako zerbitzuaren bidez **genero-indarkeriaren biktime den emakume baten seme-alabak zer behar dituen identifikatzen da:**

- Oinarrizko **gizarte-zerbitzuak** beharren azterketa eta diagnostikoa egiten du, esku hartzeko plan pertsonalizatu bat egin aurretik. Plan hori amarekin edo tutorearekin adosten da, baldin eta gizarte-baliabideen eskatzailea bada. Beste zenbaitetan, babesgabetasun-egoera antzeman ondoren, Balora aplikatuta egiten da. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeekin esku-hartzeko programa proposa daiteke tresna horren bidez.
- **Arreta psikologikorako zerbitzuak**, berriz, amarekin esku hartu eta adingabearen behar psikologikoen aurretiko eta ondorengo ebaluazio bat egitea aurreikusten denean hartuko du esku.

Babesgabetasuna izan dezakeela pentsatzen bada, **Adingabeen eta Familiaren Foru Zerbitzuak** balioesten du egoera. Zenbaitetan, Adingabeen eta Familiaren Foru Zerbitzuak proposatuta artatzen dira babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden adingabeak.

Une honetan, Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Adingabeen eta Familiaren alorra genero-indarkeria izaten den kasuetan esku hartzeko protokolo bat egiten ari da. Ekintza hori Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Foru Planaren barruan sartzeko da; izan ere, genero-indarkeria desagerraraztea da jarduera-ardatzetako bat.



Gasteizko Udalean, genero-indarkeriaren biktime diren haur eta nerabeei zerbitzu hauetan ematen zaie laguntza: **Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailean**, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, Haurren eta Familiaren Zerbitzuan eta Gizarteratzeko Zerbitzuan (Genero-indarkeriaren Biktimen Arreta).

Ezin ahaztu hemen, Herritarren Segurtasun Saila, Udaltzaingoak genero-indarkerian espezializatutako unitate bat baitu.

Genero-indarkeriaren biktimei eskaintzen zaien gizarte-zerbitzuen eta baliabideen sistemaren barruan, hala nola larrialdiko harreretan, egonaldi ertainetan, laguntza psikologikoan, juridikoan eta abar, familia-unitate bakoitza osorik hartzen da, eta bereizi egiten dira kide bakoitzak dituen behar espezifikoak, adingabeak barne. Biktime den emakume baten seme-alabak ere biktimatzat jotzen dira, bai zuzenean tratatu txarra jaso badituzte, bai amaren kontrako indarkeriaren lekuko izan badira.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuen bidez **eskuratzen da** adingabeei zuzendutako laguntza hori. Zer behar dituen diagnostikatu ostean erabakitzen da esku hartu edo adingabea beste baliabide batzuetara bideratu.

Adingabeek zerbitzu hauek eskaintzen duten laguntza jaso dezaten, haien ama edo tutorea zerbitzu horietan bertan artatu behar dute. Kasu horietan, **prozedurari** hasiera emateko, diagnostikoa eta adingabearentzako arreta-plan pertsonalizatua egingo dira, betiere laguntza emango zaion familia-unitatearentzako plan orokorra eta familiako kide bakoitzarentzat egingo dena kontuan hartuta.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako edo zerbitzu espezifikoetako lantalde psikosozialek **identifikatuko** dute genero-indarkeriaren biktime diren seme-alabek zer behar duten.

Arrisku-adierazleak daudela edo genero-indarkeriaren biktime diren haurrek erdi mailako babesgabetasuna dutela identifikatzen bada, Haurren eta Familiaren Zerbitzura bideratuko da kasua, eta hor familia-unitate osoa hartuko da (ama eta seme-alabak), haien behar guztiak kontuan hartuta.

Familia-unitateak genero-indarkeriaren biktimeentzako abegi-baliabide espezifiko bat behar badu (egonaldi ertain edo luzeko abegi-etxea), Gizarteratzeko Zerbitzuan emango da arreta osoa (Genero-indarkeriaren Biktimen Arreta).

Abegi-etxeetan lan integrala egiten da amekin etortzen diren genero-indarkeriaren biktime diren haurrekin; hor sartzen dira: arreta espezifikoa, gizartekoa, psikologikoa, hezkuntzakoa eta familiarra.

Familiako kide bakoitzak zer behar dituen identifikatzen da, eta lan-plan bat egiten da banakako eta familiako behar horiei erantzuteko.

- Genero-indarkeriaren biktime den emakumearentzako banakako arreta-plana. Biktime den emakumearen beharrei behar bezala erantzutea haurrentzat ere ona izango dela uste da.



- Genero-indarkeriaren biktime diren haur eta gazteentzako banakako arreta-plana, sistema guztiak tartean direla (osasan-arloa, hezkuntza-arloa, juridikoa).

Udal mailan, Udaltzaingoarekin eta Berdintasun-zerbitzuarekin koordinazio-lana egiten da. Beste zerbitzu eta sistema hauekin ere egiten da koordinazio-lana: osasan-sistemarekin (osasan-zetroen nahiz ospitaleen sarea), hezkuntza-sistemarekin (ikastetxe zehatzak eta Berritzegunea), sistema judizialarekin (biktimari laguntzeko zerbitzua, orientazio juridikorako zerbitzua, auzitegi-medikuntzako klinika zerbitzua, lantalde psikosoziala eta abokatuak), Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin, Lanbiderekin, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin (genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko lantaldea) eta Emakunderekin.

BIZKAIA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak programa eta zerbitzu hauek egiten ditu tratu txarren biktime diren emakumeei eta haien seme-alabei laguntzeko:

Larrialdiko Harrera Zerbitzua

Hauek dira genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen seme-alaben arretarako zerbitzu honen ezaugarriak amarekin batera datozelako: berehalako arreta ematen espezializatutako langileak ditu, eguneko 24 orduetan eta urte osoan zehar; harrera-lanak, esku hartu eta konpainia-lanak egiten dituzte langile horiek, emakumeek salaketarik jarri beharrik gabe, etxeko tratu txarren biktime diren emakume eta haien kargura dauden seme-alabekin, zer administrazio-egoera duten, desgaitasunen bat edo toxikomaniaren bat duten kontuan hartu gabe.

Hala ere, ezin da esan baliabide hori egoera horretan dauden adingabeei arreta osoa emateko pentsatuta dagoenik. Izan ere, biktimekin egiten den esku hartzeak arreta, bereziki, familiaren buru den emakumearengan jartzen du, bai baliabide honetara iristen direnean bai hurrengo egunetan, eta adingabe horiei ematen zaien laguntza oinarritzko beharrei erantzutera eta konpainia egitera mugatzen da, helburua emakumeak egin beharreko kudeaketak egitea baita, seme-alaben zaintza ordu batzuetan beste batzuen esku uzteko aukera izanda.

Ohikoa izaten da, bestalde, larrialdiko harrera-zerbitzura jotzen duten adingabeak, eskolatuta badaude, eskolara ez joatea, helburu nagusia haien segurtasuna babestea baita, eta, gainera, askotan behin-behineko bizilekuz aldatzea baitakar zerbitzu honetara sartzeak.

Edonola ere ez da esku hartze espezifiko bat egiten haiekin, hau da, ez da indarkeriaren eraginpean egoteak eta, ondorioz, haien ohiko bizilekutik atera behar izateak haurrengan izan duen eraginari heltzeko esku hartzerik egiten. Egoera larri hauetan laguntza eta konpainia amei ematen jartzen du arreta programak.

Egonaldi ertain-luzeko harrera

Gizarte Ekintzako Sailaren eta diru-irabazi asmorik gabeko erakunde baten arteko lankidetzahitzarmen bati esker, baliabide bat eskaintzen zaie etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien kargura bizi diren seme-alabei.

Zerbitzu honetan badago nahikoa giza baliabide bertan hartzen diren emakumeen seme-alabek bizitako indarkeriazko egoerei erantzun osoa emateko. Biktimatzat hartzen dira haur horiek, indarkeriaren jomuga izan direlako noiz edo noiz, indarkeriaren lekuko izaten direlako edo harremanetan eta gatazkak konpontzeko eran indarkeria, botere-abusua eta kontrola gailentzen diren inguru batean bizi direlako, zeinak harreman- eta genero-rola eraikitzekeo eredu negatibo bat sortzen duen eta kaltea dakarren haurren garapenerako.

Programa psikopedagogikoak, eskola-laguntzakoak, aisia eta aisialdikoak edo berariazko beste batzuk egiten dituzte; programa horiek guztiak erabat malguak izaten dira, eta adingabe horien behar zehatzetara egokitzen dira; haien amak ere programa horietan sartzen dira, modu aktiboan. Helburua da sufrimendua eta indarkeriazko egoera batean nahasita egoteagatik ager dakiekeen ondorioak (izan ditzaketan traumak) arintzea.

“Egonaldiaren lehen hilabeteen behaketa egiten da, zenbait tresna erabilia (banakako behaketa-erregistroa, garapen-eskalak, proba psikometrikoak, proiektzio-testak, irakurketa- eta idazketa-probak, elkarrizketak haurrarekin eta amarekin); ondoren, haurraren Banakako Hezkuntza Proiektuan zer ildo landu behar diren erabakitzen da, haren adinera egokituta, eta ume edo nerabe bakoitzak dituen baliabide pertsonalak kontuan hartuta, alderdi problematikoak, gabeziak eta haren baliabide pertsonalak lantzeko. Behaketa-aldian honako alderdi edo eremu hauek ebaluatzen dira: oinarrizko ohiturak, bizikidetzako-ohiturak eta familia-harremanak, eremu biologikoa, afektiboa, psikosoziala, aisialdikoak, ekonomikoa eta etxebizitza, juridikoa eta psikopedagogikoa”.

Lan hori egiteko zenbait dinamika eta baliabide erabiltzen dira (amaren kantoia, hasierako elkarrizketa familia osoari, ohituren inbentarioa eta autonomia gaitasunak, garapen-eskalak, irakurketa- eta idazketa-erregistroak, hizkuntza-garapeneko probak, Benderren testa, proiektzio-testak eta abar).

Behar bereziak dituzten haurrei egokitutako baliabideak ere badaude.

Esku hartzeko, adingabe bakoitzaren eta adingabea parte den familia-unitatearen **psikohezkuntzako diagnostikoa** hartzen dute abiaburu (aurretik landu den Banakako Hezkuntza Proiektua kontuan hartuta); psikopedagogoko batek koordinatzen du lana. Esku-hartzea egunero egiten da etenik gabe, egoitza-izaera duelako baliabideak. Hauek dira lan-eremu nagusiak (bakoitzak iraupen jakin bat du):

- **Eskola-laguntza.** Esku-hartze psikohezkuntzakoak egiten da, eta ikasketa-zailtasun eta -nahasmenduak berrezten dira, ikastetxeekin eta hezkuntza-baliabideekin koordinatuta.
- Programak hartzen du bere gain haurrek eta nerabeak eskolatzeko izapideak egiteko lana, behin programaren barruan daudela, baldin eta ikastetxez aldatu behar badira.

- **Aisia eta aisialdiko jarduerak.** Zentroan bertan lantegiak antolatzen dira, eta kanpo-baliabideak erabiltza jarduerak programatzen.
- **Programa psikopedagogiko espezifikoa:** koedukazioaren arlokoak, droga-mendekotasunen prebentzioaren arlokoak, gizarte-trebetasunekoak, autoestimukoak, jokabidea aldatzekoak eta genero-indarkeria prebenitzekoak.
- **Programa espezifikoa:** esfinterra kontrolatzekoak, lo-ohiturei buruzkoak, amaren eta seme-alaben arteko bitartekari izatekoak, ekonomiakoak, jokabideak aldatzeko edo ezartzeko fitxenak.
- **Familia-unitate osoarekin egiten diren programak:** hazkuntza-trebetasunak, aisia eta aisialdiko jarduerak elkarrekin egitea, bitartekaritza, jokabide-aldaketak, gatazkak konpontzeko bitartekaritza eta abar.
- **Haurraren garapena estimulatzeko programak** (mugimenduaren alorra, linguistikoa, soziala, autonomiarena eta abar)

Familian esku-hartzeko programa espezializatua.

Programa hau genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat da berez, baldin eta harrera-etxean egon ostean erasotzailearengana itzuli edo harreman horri berriz ekiteko arrisku handia badute edo, bestela, elkarrekin bizi badira. Programaren talde onuradunetako bat emakume horien kargura dauden adingabeak dira.

Esku-hartzeak 18 hilabete irauten ditu gutxi gorabehera, eta haien egoera balioesten da, jarraipena egiten zaie eta laguntza psikosoziala ematen. Genero-indarkeriaren biktima diren haurrei laguntzeko programa bat da, haien amen egoera edozein dela ere.

Posible den kasuetan, banaka jarduten da haurrekin, eta harekin egin den lanari buruz eta hari eragingo dien erabakiei buruz zer iritziz duten balioesten da eta kontuan hartzen. Gainerako kasuetan, amen bidez egingo da adingabeei zuzendutako esku hartzea. Programan aurreikusten da:

- Familiaren barruan gertatutako indarkeriari buruzko tabuarekin eta sektarismoarekin haustea.
- Arazoak konpontzeko metodo gisa indarkeria erabiltzea zer portaera eta sinesmenek justifikatzen duten aztertzea eta definitzea.
- Gizarte-harremanetarako eta gatazkak konpontzeko trebetasunak erabiltzen ikastea.
- Emozionalki osatzen eta autoestimua hobetzen laguntzea.
- Esperientzia positibo bat eskaintzea giro seguru eta egituratu batean.

- Gizartean dauden rol eta estereotipo sexistak zalantzan jartzea.
- Bere ingurune hurbileneko jarrera eta portaera sexistak zalantzan jartzea.
- Jarrera eta portaera ez sexistak beregana ditzan laguntzea.
- Pertsonen arteko desberdintasunak edo dibertsitatea dela eta, jarrera positiboa eta errespetua izan dezaten erakustea.
- Haur izanik zer eskubide eta bete behar dituzten eta nola gauzatu behar diren erakustea.
- Pertsonen arteko harreman hierarkikoak zalantzan jartzen erakustea (justizia-printzipioa).
- Indarkeriaren logikaren funtzionamendua zalantzan jartzea ikuspegi ez-sexista izanda.
- Pertsonen arteko harremanetan menderatze-ereduekin edo men egitekoarekin hausten zer portaerek laguntzen duten erakustea.
- Belaunaldi batetik bestera indarkeria betikotzen duten harreman-ereduekin hausten laguntzea.

Amarekin jarduten denean, hauraren egoerari buruzko elkarrizketa egituratu bat eta erdi-egituratu bat egiten zaio; horretaz gain, aholkuak ematen zaizkio eta konpainia egiten, seme-alabek zer iritzi duten eta zer egoera bizi duten jakin eta kontuan har dezan. Aldian behin, ikastetxearekin koordinazio-lana egiten da, umearen bilakaerari jarraipena egiteko eta elkarrekin zer hezkuntza-behar izan ditzakeen antzemateko.

Lege-arloan, berriz, banaketa edo dibortzio kasuetan, seme-alabentzat bisita-erregimen egokiena zein den aztertu eta balioesten da amekin batera. Adingabe batzuek izaten dituzten beharrak haiekin eta haien amekin batera balioetsi ondoren, lagundu egiten zaie auzitegi-balorazioetara eta talde psikosozialetara, eta tratu txarrak daudenean, etxetik ateratzen ere bai.

Familia barruan eta kanpoan tratu txarren edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa.

Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean edo haustura-prozesu batetik eratorritako arazo psikologikoak daudenean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programaren barruan dago programa klinikoa hau. Familia barruan edo kanpoan tratu txar fisiko edo psikologikoen edo sexu-erasoen biktima diren adingabeez arduratzen da, baldin eta haien amak/aitak guraso-ahalerako gai izateagatik Gizarte Ekintza Sailak ematen duen babesa jasotzen ez badute.

Programa honen helburua da **adingabeek dituzten ondorio psikologikoak gainditzen laguntzea**. Kasu askotan, bereziki familia barruko sexu-abusuak izan diren kasuetan, familiaren esparruan adingabearen babesle den pertsona horrekin ere hartzen da esku.

Amen bidez bideratzen dira adingabeak tratu txarren biktimei zuzendutako programara. Etxean tratu txarrak jaso dituzten biktimekin esku hartze psikologikoa egin behar den kasuetan, haien kargura seme-alaba adingabeak badituzte, haur horiek zer nolako tratu txarrak bizi izan dituzten eta zer egoera psikologikotan dauden ebaluatzen da. Bizitako tratu txar zuzen edo zeharkakoengatik haurrak emozionalki zenbateraino ukituta dauden balioesteko, amak kontatutakoaren egiazkotasuna eta amak berak zenbaterainoko ahulezia emozionala duen hartzen dira kontuan.

Adingabeekin esku hartzeko hiru jarduera maila daude:

- **Prebentziozko esku-hartzea:** Kasu askotan, amari jarraibide eta orientabide espezifikoak ematen zaizkio harekin egiten den esku hartzean; jarraibide horiek haurraren egoera psikologikoa indartzen eta hobetzen laguntzen dute, eta behar bezalako bizi-erritmoa berreskuratzen; askotan, nahikoak izaten dira, bereziki txikientzat.
- **Esku-hartze zuzena: Sintoma psikologiko hauek antzematen** direnean egiten da esku-hartze zuzena: antsietatea, amesgaiztoak, suminkortasuna, beren berdinak behin eta berriz erasotzea, etengabeko apatia, segurtasunik eza, errendimendu- eta ikasketa-arazoak edo trauma osteko estresaren nahasmendua. Ebaluazio psikologikoa egiten zaie, eta horren arabera erabakitzen da zenbat saio egin.

Adingabeekin egiten diren esku-hartzeak indartzeko, **amekin ere egiten dira berariazko esku-hartzeak** aldi berean: horrek esan nahi du denbora luzean jarraipen estua egitea kasu guztietan.

- **Adingabe erasotzaileentzako tratamendu espezifikoak:** Haurrek indarkeriazko portaerak errepikatzen edo kopiatzen dituztenean, bereziki amaren aurka – nerabezaroan edo nerabezaroaurrean gertatu ohi da–, indarkeriazko jokabide horiek ezabatzeri eta sexu-rolari eta indarkeriaren erabilerari buruz ikasitako ideia desitxuratuak aldatzera bideratzen da tratamendua.

Programan parte hartzen duen lantalde terapeutikoari dagokionez, adierazi behar da terapeuta guztiek tratatzen dituztela adingabeak. Prestakuntzari dagokionez, berriz, haurrekin esku hartze psikoterapeutikoaren alorreko prestakuntza klinikoa izatea eskatzen zaie.

Datu-bilketa

Bizkaiko Foru Aldundiak **Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia** du, Gizarte Ekintza Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren barruan. Zerbitzu horrek abegi-zerbitzuen, familia elkarguneen, arreta psikologikoa emateko eta familian esku-hartzeko zerbitzuen erabiltzaile diren emakumeen seme-alabei buruzko informazio kuantitatiboa biltzen



du sei hilabetez behin. Udaletara eta mankomunitateetara bidaltzen dituen galdera-sortetan ere sartzen du adierazle hori, eta urtean behin argitalpen bat kaleratzen du.

BILBOKO UDALA

Genero-indarkeriaren Aurkako Udal Programa du. Tartean diren sailen bidez – Berdintasun, Lankidetzeta, Herritarren Arreta, Gizarte Ekintza eta Etxebizitza sailak–, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien mendeko adingabeei egoera horietarako berariazko gizarte-zerbitzuak eskaintzen zaizkie.

Bilboko Udalaren **Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritarren Atalak** arreta osoa eskaintzen die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien kargura dauden pertsoneri.

- Informazioa eta orientazioa:
 - Astean behingo hitzaldiak, emakume guztientzat, tratu txar moduekin eta haiei aurre egiteko eskura dauden baliabideekin erlazionatutako gaiari buruz.
 - Arreta pertsonalizatua, hitzordua hartuta gizarte-langileekin.
- Udalaren abegi-etxebizitzak. 9 abegi-etxebizitza ditu Bilboko Udalak, etxea utzi behar duten eta nora joanik ez duten emakumeentzat.
- Arreta psikologikoa ematen die gai honetan espezializatutako psikologoek.
- Gizarte- eta hezkuntza-laguntza, bai abegi etxean dauden emakumeei bai haien kargura daudenei.
- Larrialdiko diru-laguntzak, abegi-etxean dauden emakumeen oinarritzko beharrak asetzeko, diru-sarrerara nahikorik ez badu.
- Aholkularitza juridikoa; baliabide ekonomikorik ez duten emakumeen ordezkarietza-gastuak ordaintzen dira zerbitzu honen bidez.

Berdintasun Sailak, Haurren Negoziatuak eta Gizarte Zerbitzuek sinatutako **“Adingabekoak tartean dauden genero-indarkeriazko egoeretan esku hartzeko koordinazio-protokoloan”** adostu da **Berdintasun Sailak** jakinarazi eta bideratu behar dituela **gizarte-zerbitzuetara laguntza eskaini zaien emakumeen seme-alabak**, eta bereziki urgente, abegi-baliabideetan daudenak.

Umeen Negoziatuak gizarte eta hezkuntzaren eta komunitatearen arloetan esku hartzeko programa du (PISEKO). Prebentziozko programa eta programa hezitzailea da nagusiki, eta 0 eta 18 urte bitarteko adingabeei eta haien familiakoei zuzendurik dago, bereziki arrisku-egoerak agertzeko bidea ematen duten faktore eta egoerak izaten dituzten adingabeei.



Programa horiek ingurune irekian jarduten duten hezitzaileek eta familian jarduten duten hezitzaileek kudeatzen dituzte; adingabeak bere familian irautea bultzatzen dute, eta, beraz, haien beharrak asetzeko laguntzarik egokiena ematen saiatzen dira.

Adingabe bakoitzarekin diagnostiko, balioespen eta **gizarte eta hezkuntzaren arloan esku hartzeko plan** bat egiten da.

- Haurrei egiten zaien balioespenean, urrats hauek egiten dira:
 - Kalteak (psikologikoa) balioetsi.
 - Aita eta ama balioetsi.
 - Ingurua, etxebizitza, adina, eskola-testuingurua eta haurrak bere aitarekin eta amarekin zer nolako harreman afektiboak dituen ezagutu eta balioetsi.
- Banaka esku hartzeko plana egin (“erreferentziatzko profesionala” izango den gizarterbitzuetako gizarte-langileak zuzentzen du):
 - Helburu behinena haurra genero-indarkeriatik babestea da.
 - Kalteak gutxitu eta onbideratu, desorekatu diren afektuak zuzendu (manipulazioa saihestuz).
 - Haurrak oso txikiak badira, esku hartzea haien etxeetan egiten da.
 - Haurrak abegi-etxeetan badaude, etxebizitza horietan egiten da esku hartzea.
 - Familian esku hartzen da.

GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen du *“amak familia barruan indarkeria edo tratu txarra jasaten duen unetik beretik seme-alabak ere egoera berean...”* daudela, eta adingabeei biktima diren emakumeei laguntzeko dauden baliabide eta zerbitzuak erabiliz laguntzea aurreikusten da, **baina ez du genero-indarkeriaren biktima diren haurrei zuzendutako programa espezifikorik**. Bizikidetzeta-harremanen esparruan esku hartzen da.

Gizarteratze, Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta eta Gizarte Larrialdien Zerbitzua.

Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta eta Gizarte Larrialdien atalean eskaintzen diren zerbitzuetan, genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeekin esku hartze hau egiten da:

- Egoitza-baliabideak: berehalako abegi-zentroak, egonaldi labur eta ertainekoak (2) eta autonomia-etxebizitzak (3):

Egoitza baliabide hauetan biktimak diren emakumeak eta haien mende daudenak hartzen dira, haien kontura bizi diren seme-alabak barne.

Inguru seguru bat, denbora eta laguntza egokia eskaintzea da baliabide honen helburua.

Berehalako abegi-zentroaren kasuan, hezkuntza-plan bat dago:

Urrats Zentroaren adingabeentzako hezkuntza-plana.

Amarekin egiten da lan, bera delako adingabe bakoitzarekin egiten den esku-hartzearen bide-erakusle eta erraztaile; jarraibideak ematen zaizkio, eta, beharrezkoa izanez gero, amaren eta seme-alabaren arteko harreman-lotura berreraikitzen ahalegintzen dira.

Zeharka, amarekin batera:

- Ohitura osasungarriak, errutinak, ohiturak... eskuratzea.
 - Elikadura
 - Loa
 - Higienea
 - Diziplina
- Osasuna: azterketa pediatrikoak, txertoak...

Masaje eta estimulazio goiztiarraren lantegien programaren bidez:

- Amaren eta seme-alabaren arteko atxikimendua eta lotura.
- Estimulazio sensoriala
- Esplorazio fisikoa, soziala
- Hizkuntza-estimulazioa...

Familiarekin eta berdinen artea egiten diren jolas- eta hezkuntza-jardueren bidez:

- Gizarte-trebetasunak: gauzak eskatzea, begi-kontaktua, elkarrizketa bat hastea, egitea eta amaitzea, beste batzuekin enpatia sentitzeko trebetasuna...
- Lagun-harremanak, adiskidetasuna...
- Emozioak adierazteko bidea eman eta erraztea: beldurra, larritasuna...
- Udalekuetan izena ematea
- Aisia-jardueretako programa

Adingabeekin esku-hartze zuzena:

BAP – Banakako Arreta Plana:

Hezkuntza-arloa:

- Ohitura osasungarriak izan ditzaten bultzatzea
- Kirolaren bidez balioetan heztea
- Eskolatzea bermatzea
- Ikastetxearekin ekintzak koordinatzea
- Eskola-errefortzua eta -laguntza
- Hizkuntza errefortzua

Osasun-arloa:

- Ongizate fisiko eta psikikoa bultzatzea
- Osakidetzaren haurren osasun-plana bultzatzea

Arlo psikologikoa:

- Zenbait kasutan, banakako terapiak egitea.
- Inguru seguru eta egituratua ematea, errutina egonkorrekin.
- Izan dezakeen trauma lantzea. Trauma osteko estresaren sintomak neutralizatzen ikastea.
- Indarkeriari buruzko balioak eta iritziak berregituratzen eta hari aurre egiteko erantzun positiboak sortzen laguntzea.
- Emozioak adierazteko bidea eman eta erraztea: beldurra, larritasuna...
- Jokoaren bidez taldean behatzea, berdinen artean zer elkarreragin dagoen balioesteko.
- Amaren eta seme-alabaren arteko lotura onbideratzea.
 - Indarkeria matxistaren eta sexu erasoaren biktimei direnei arreta psikologikoa ematea:

Zerbitzua Gipuzkoako Psikologo Elkargo Ofizialarekin egindako hitzarmen baten bidez ematen da. Tratu txar matxisten eta sexu-erasoen biktimei zuzendurik dago, non egoera horren biktime diren haurrak eta nerabeak sartzen diren.

Seme-alabei, behar izanez gero, banaka eskaintzen zaizkie saioak zerbitzuan. Profesionalak adingabeen arretan espezializatuta egotea lehenesten da.

Familia-saioak ere egin daitezke, beharrezkoa dela ikusten bada.

Indarkeria Matxistaren Biktime diren Emakumeen Arreta eta Gizarte Larrialdien atala nabarmen hazi da, abegi-zentroen kontu-saileko gastu-aurrekontua % 51 igo delako; atalak berehalako arretarako zentroaren kudeaketa bere gain hartu duelako izan da igoera hori, atal horren sareko zerbitzu izatera igaro baita, Gizarte Zerbitzuen 2008ko Legea bete dadin.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzua:

Edozein eragilek (udalaren gizarte-zerbitzuek, Gizarteratze Zerbitzuak, Indarkeria Matxistaren Biktime diren Emakumeen Arreta eta Gizarte Larrialdien Zerbitzuak, eskolak, osasun-arloak...) uste badu genero-indarkeriaren biktime izan daitezkeen haurrak edo nerabeak egon

daitezkeela, bai, zeharka, aitzak ama erasotzen ikusteagatik indarkeria horren eraginpean egon direlako, bai familia-unitatearen barruan biktima zuzenak izan direlako, edo, bestela, berdin arteko harremanen esparruan genero-indarkeria jasan dutela, eta genero-indarkeriaren eraginpean egoteagatik haur edo nerabe horien babes arisku larrian badago, beharrezkoak diren programa edo zerbitzu guztiak jarriko ditu abian Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak.

Alde horretatik eta babesgabetasun-arriskua baliozkotzat jo ondoren, familian esku hartzeko zenbait programa jar daitezke abian; izan daitezke terapeutikoak edo gizarte eta hezkuntza arlokoak, norbanakoari zuzenduak edo familia osoari, eta adingabeentzat edo helduentzat. Esku-hartze mota bat baino gehiago izaten dituzte programa horiek, eta kasu bakoitzerako egin den planaren helburuetara eta babesgabetasun tipologietara eta abarretara egokituta egoten dira.

Esku-hartze mota horietako batek familia barruko sexu-abusua ikertzeari eta baliozkotzat jotzeari egiten dio erreferentzia, bai eta sexu-abusu hori izan dela berresten denean haren ondorioak konpontzeari. Beste esku-hartze mota bat izaten da bereziki familia barruan jarrera biolentoak dituzten nerabeekin lan egitea. Beste esku-hartze bat ere bada zuzenean haurren eta nerabeen edo haien heldu-irudiaren erresilientzia gaitasuna lantzerantz bideratua.

Babesgabetasuna hain handia izateagatik ezinbestekoa bada haurrak edo nerabeak haien jatorrizko familia-unitatetik bereiztea, ordezkotako familia batera edo harrerarako egoitza-zentro batera bideratu daitezke haur horiek, haurrak babesteko nahitaezko legezko neurria hartu ostean.

DONOSTIAKO UDALA

Berriazko arreta-zerbitzu zentralizatu bat du: **Genero Indarkeriaren Biktimei Zuzendutako Arreta Zerbitzua**; horra iristen dira indarkeria matxistarekin erlazionatutako kasuak eta jakinarazpenak; gizarte-langileen bidez edo herritarrek emandako informazioaren bidez eta abar jakiten da indarkeria-kasu horien berri. Askotan, ordea, herritar guztiei zuzendutako udalaren beste gizarte-zerbitzu batzuk erabiltzen ditu, hala nola **Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua** edo **Kulturarteko Bitartekaritza**.

Babesgabetasun **arina duten hurrei bideratzen zaie** nagusiki, babesgabetasun hori sortu duten egoera jakin batzuen mende egoteak eragindako kalte fisiko, emozional edo segurtasunekoak dutenei. Babesgabetasun-faktoreak indargabetu daitezten egiten da lan, eta haurrari ongizate- eta garapen-baldintzak eskainiko dizkion inguru bat eraikitzen.

Egoera horietan, **kasuaren arduradun bat** izendatzen da. Teknikari horrek ikertu eta balioetsiko du kasua elkarrizketak eginez, eta jasotako emaitzen arabera **haurrarekin jarduteko plan bat proposatuko du**. Hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

- Babesgabetasuna balioesten da.
- Esku hartzeko plana egiten da.



- Hezkuntza-baliabideak edo baliabide terapeutikoak jartzen dira kasu bakoitzaren esku.
- Gizarte-langilearekin edo Genero Indarkeriaren Biktimei Zuzendutako Arreta Zerbitzuarekin batera beharrezkoak izan daitezken beste baliabide batzuk planifikatzen dira (laguntza ekonomikoak, etxebizitza eta abar).
- Adingabeak eta haren egoerak zer bilakaera izan duten balioesten da, hiru hilean edo sei hilean behin.

BALORA ebaluazioaren arabera, gutxienez **babesgabetasun arina** duela balioetsi behar da adingabeak arreta jaso ahal izateko.

Genero-indarkeriaren biktimei diren haurrak **garaiz detektatzeko, Genero Indarkeriaren Biktimei Zuzendutako Arreta Zerbitzua** harremanetan dago beti **Berdintasun Zerbitzuarekin** eta **Udaltzaingoarekin**. Horretaz gain, oinarritzko gizarte-langileekin, ikastetxeekin, osasun-zentroekin eta udal- eta foru-zerbitzuekin **sare** bat izateko lanean dihardu.

Hasierako balioespenak eta esku hartzeko planak haurrak zer egoera bizi duen hartzen dute kontuan. Informazioa jasotzeko fasean ohartzen badira adingabea arrisku- edo babesgabetasun-egoeran egon daitekeela, Prebentzio, Haurrak eta Familia Zerbitzuari jakinaraziko zaio; horrek balioetsiko du haurra tratu txar psikikoa edo fisioa jasotzen ari den edo beste era bateko babesgabetasun-egoeran dagoen. Tratu txar psikikoaren kasuan “indarkeria-egoeren eraginik” badagoen balioesten da.

Emakumeei zuzendurik dago esku-hartzea, indarkeriaren problematikari irtenbide bat bilatzeko; irtenbideak emakumea eta haren seme-alabak babestu behar ditu. Alde horretatik, genero-indarkeriaren biktimei den emakumea babesteko sistemak emakumea du esku-hartzearen gune, betiere seme-alabak egon daitezkeela kontuan hartuz.

Benetako koordinazioa dago oinarritzko gizarte-zerbitzuekin eta haurren zerbitzuekin “genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak” balioesteko eta arreta emateko. Elkarrekin balioesten dute babes-neurririk ezarri behar den edo baliabide psikologikorik eskaini behar zaien.

Haurren zerbitzutik familiako esku-hartze bat egiten da; horrek aukera ematen du amarekin eta seme-alabekin lan egiteko, bai eta aitarekin ere, hark onartzen eta laguntzen badu eta segurtasun-baldintzak betetzen badira. Familia-sisteman esku hartzen da, haurrak babestea helburu izanik eta haien ongizatea bilatu nahirik.

4.2. Justizia-eremuko arreta

Sistema judizialaren barruko operadore juridikoek **betekizun judizial edo fiskala bat betetzeko hartzen dute parte beti adingabeekin**. Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko tresna asko dago, baina eragozpen handiena izaten da, batetik, ikusezin izaten direla, eta, bestetik, haur horiek biktimatzat jotzen direla soilik, eta ez generoko biktimatzat, nabarmena denean zuzenean eraso dituztela.



Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak (ABIU)

Estamentu juridikoen eta genero-indarkeriaren biktimen –emakume zein seme-alaben– arteko zubi izan daitezke, ikusgai bihurtzen dituztelako indarkeriak bereziki ahulenetan izan dituen ondorioak, eta sensibilizatu egin ditzaketelako justiziaren arloko profesionalak problematika honi aurre egiteko arreta osoaren beharraz.

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen seme-alabekin esku hartzea.

ABIUk egindako esku-hartzea aditu-erakoa izaten da: **diagnostikoak** egiten dituzte eta ez tratamenduak. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak nahiz haien kargura daudenak aztertzen dituzte; adingabeak, adibidez. Epaileak aginduta jarduten da, prozesu judizialari laguntzeko. Esku-hartze hauek ez dira kasu guztietan egiten, **eskumena duen epaileak agindutakoan bakarrik**, eta **sekula ez epaiketa azkarren bidez ebatzitako kasuetan**.

ABIUetara bideratzen diren kasuak bereziki larriak izan ohi dira. Epaileak ez badu adierazten seme-alabak ABIUek balioetsi behar dituztela, haien amei egindako balioespenaren bidez identifika daitezke seme-alaben zenbait behar, eta egokia irudituz gero adingabeen fiskaltzaren esku utziko dira.

Haurrak edo nerabeak deklaratu behar badu, talde psikosozialek hartuko dute parte adingabeari laguntzen; zirkuitu itxiz deklaratuko dute, ispilu bat duen “gela” batean, pribatutasun-bermeak izan ditzan eta froga aurre-erakitzeko.

Grabaketak egiteko arrazoi bat izaten da haurrari sinesgarritasun gehiago ematea, txosten bat, oso landua eta zehatza izanagatik ere, aseptikoagoa izaten delako beti, eta ez dituelako izaten bizitakoari buruz haurrak egindako kontakizunak izaten dituen zenbait elementu.

ABIUetara iristen diren haurrak psikiatreek edo psikologoek balioesten dituzte, kasuaren arabera, baina erreferentziazko profesional bakarra izaten dute. Amak, berriz, profesional batek baino gehiagok balioesten dituzte: medikuek, psikologoek eta gizarte-langileek.

Guraso eta seme-alabei elkarrizketak elkarrekin daudela egiten bazaizkie, elikadura-mota, haurraren lo-eredua, beldurrik baduen eta abar aztertzen da, eta haurrak gurasoen aurrean nola jarduten duen behatzen da, hitzekoa ez den hizkuntza interpretatuz. Hurrengo balorazioa adingabearekin soilik egingo litzateke. Gehiago egin beharko balira, haurrarekin bakarrik egingo dira.

Gehienek ez dute beren burua biktimatzat jotzen, eraso egiten dien helduak horren arrazoiren bat ematen dielako: “gaiztoa zara edo ez dituzu aginduak betetzen...”.

Etorkizuneko pronostiko-balioespena egiten da, ondorioak ez direlako beti berehala agertzen, haurtzaroan izandako sexu-abusuetan, adibidez.

Haurrak arriskuan daudela uste bada, adingabeen fiskaltzari jakinarazten zaio, eta arazo-motaren arabera, gizarte-baliabideetara edo osasun-baliabideetara bideratzeko eskatzen da. Peritu txostenaren ondorioetan jasota uzten dira ABIUetan identifikatutako behar horiek.

Lantalde psikosozial judiziala

Organo judizial batek eskatuta hartzen du esku. Ezin zaio deitu prozesu judizial baten barruan ez dagoen inori.

Mugaketa bakoitzean hau egiten du lantalde psikosozial judizialak:

- a. Organo judizialek eta fiskalek eskatutako peritu-txosten psikologikoak, psikosozialak, gizarte eta familiakoak eta gizarte eta hezkuntzakoak, eta epaiketako defentsa.
- b. Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen Legeak “talde teknikoak” egin behar dituela ezartzen duen eginkizun guztiak.
- c. Epaile eta fiskalekin batera aritzea adingabearen intereseko proba/egintza prozesalen garapenean.
- d. Legean espresuki erabakitako beste esku hartze batzuk.

Peritu-eginkizunetan, lantaldea espezialista da honetan:

1. Adingabeei buruzko gaietan: adingabeen erantzukizun penal (aholkularitza, laguntza teknikoa eta bitartekaritza). Adingabeen babesa, sexu-eraso eta -abusuak eta haurren lekukotasuna.
2. Familia Zuzenbidearen prozeduretan.
3. Balioespen psikologiko eta sozio-familiarretan, bereziki sexu-delituen eta etxeke indarkeriaren biktimei dagokienez, eta lekukotasunaren eta uko egitearen balioespenetan.
4. Nortasunaren eta psikometriaren azterketa osagarrietan, egozgarritasuna balioesteko eta ezintasun-hipotesietarako.

Genero-indarkeriaren biktima diren hurrekin esku hartzea.

Lantalde psikosozial judizialak aurre-erakitako edo aurreratutako frogak burutzen ditu kasu honetan: eraso edo abusu bat jasan duen biktima adingabe bat egon eta dagokion organo judizialak, zigor-arloko prozesu bat irekita dagoela, esku hartu beharra daukala erabakitzen duenean, adingabearen miaketa egiten laguntzeko eta kalteak, ondorioak eta beharrak balioesteko.

Aurre-erakitako frogak egiteko, behar bezala egokitutako “gela” batean egoten da adingabea, lasai senti dadin eta margotzen, marrazten edo jolasten egon dadin; psikologo baten laguntza izango du eta hark zainduko du deklarazioa nola hartu behar zaion eta erabiltzen den hizkera haurren adinera eta ezaugarrietara egokituta dagoen. Batzorde judiziala ispilu opakuaren atzean egongo da.

Haurrak edo nerabeak auzitegian agertu behar badu delitu baten biktima izan delako, laguntza izango du deklaraziorako; gehienetan, gainera, bideokonferentzia bidez deklaratuko du. Informazioa, babesa eta laguntza emozionala eskaintzen zaio prozesu osoan, bai eta amaitu ostean ere, jasan ditzakeen kalteak minimizatzen.

Prozedura zibila eta familiakoetan ere esku hartzen da. Prozedura horietan, emakumeen aurkako indarkeriaz arduratzen diren epaitegiek eskatzen dituzten familiako peritu-txostenak egiten dira adingabeei aplikatu beharreko neurriei buruz, hala nola zaintza eta jagoletza, bisiten erregimena edo haiek etetea.

Lantalde psikosozial judizialek pasatzeko, adingabeak ez du nahitaez gatazka-dinamika batean sartuta egon behar, nahikoa da adingabe horri eragingo dioten neurri batzuk aplikatzen hastea. Aldeak (aita eta ama) ados badaude seme-alabei eragiten dien prozedurei buruz, ez dira lantalde psikosozial judizialera bideratzen. Epailak edo Fiskaltzak prozesu judizialaren barruan ezinbestekoa dela erabakitzen badu soilik bideratzen dira lantalde horietara, aldeak ados jartzen diren edo ez alde batera utzita.

ABIUen esku-hartzean gertatzen den bezala, esku-hartze espezifiko bat komeni dela pentsatzen bada –esate baterako, terapia edo gizarte-zerbitzuek edo egoki jotako baliabideak esku hartzea–, txostenean jasoko da, eta epailak erabakiko du prozedura hori eskaini edo ez. Lantalde psikosozial judizialak ez du esku hartzen, baliotespen bat baino ez du egiten prozesu judizial baten barruan; beraz, jardura oso mugatua du, zer behar dauden adieraz dezake edo orientazioen bat eman soilik.

Lantaldearen antolaketa dela eta, koordinatzaileak kasua ebaluatu eta egokiena den profesionalari bideratzen dio. Normalean, adingabeak oso txikiak badira, psikologo batengana bideratzen dira. Kasuen arabera, profesionalen sexua ere hartzen da kontuan.

Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

Biktimek Biktimei Laguntzeko Zerbitzura jotzen badute hasiera-hasieratik, esku hartzea erabatekoa izaten da; izan ere, “ibilbide-orri” bat egiten da, eta horren bidez, norbanakoak zer baliabide pertsonal eta sare-baliabide dituen aztertzen da, eta horren arabera prozesu zibil edo penal bati ekin erabakitzen da.

Biktimak prozesu judiziala abian dutela iristen badira, zenbait zerbitzu mugatu baino ezin ditu eskaini BLZk, gehienetan, uneko beharrak konpontzen saiatu.

Normalean, ez da adingabeekin esku-hartzen; hala gertatuz gero, gizarte-zerbitzuen sare publikora bideratzen dira. Haurrarekin zuzenean egiten den esku-hartzea da epaitegira laguntzea, eta ikusten bada tutoreek ez dituztela haurraren interesak behar bezala zaintzen edo babesten, Fiskaltzari adierazten zaio.

Familia-elkargunea (FE).

Familia-elkarguneak (aurrerantzean FE) honela definitzen dira: “seme-alaben, eta haien aitaren, amaren, bien familien, tutoretza edo zaintza esleituta duen pertsonaren edo gainerako

senitartekoen arteko aldi baterako harremanak bermatzera eta erraztera bideratutako gizarte-zerbitzuak dira, banaketa, dibortzio, deuseztatze edo izatezko elkartzei ezarritako neurri-arautzaileen ondoriozko egoeretarako”. Aurrerapen nabarmena ekarri dute familia-egoera gatazkatsuak kudeatzeko, aintzat hartzen baitituzte haurren eta nerabeen eskubideak.

Xedea hori izanik, euskarri-baliabide izateko eratu dira. Helburu bikoitza dute: batetik, haurrek eta gurasoek, segurtasun baldintzak betez, harreman egonkorrak izan ditzaten bermatzea, eta, bi, aita, ama eta seme-alabaren arteko harremanak hobetzea, guraso-eskumenak eskuratzen lagunduz.

Behar bezala hornitutako eta diziplina anitzeko eta espezializatutako langileak dituen toki bat eskaintzea da familia-elkargunearen funtsezko eginkizunetako bat, tratu txarren biktima diren emakumeen integritatea zaintzeko, baldin eta beren kargura seme-alabak izan eta babes-agindu bat jasota badute, zeinak esan nahi duen erasotzailea urrun edukitzeko neurri bat eman dela; erasotzaileari bere seme-alabak ikusteko bisita-erregimena ezartzen zaio.

Era honetako esku-hartzeetan, programaren eginkizun orokorrez gain, neurri bereziak jartzen dira abian; alde batetik, bi gurasoek elkar ikustea eragozteko (horretarako ezarritako itxarotendenborak errespetatu behar dituzte) eta, bestetik, adingabeek, zaintzailea ez den gurasoa, eta, aldi berean, beren amaren erasotzailea dena, bisitan etortzen zaienean izan ditzaketen ansietate-adierazpenak kontrolatzeko.

Honela ematen da zerbitzua:

- **Emate eta jasotze zerbitzua:** Ezarritako bisita-erregimena beteko dela gainbegiratu behar den kasuetarako.
- **Tutoretzarik Gabeko Bisiten Zerbitzua eta Tutoretzapeko Bisiten Zerbitzua:** Hau da programa honen helburua:
 - Adingabea zaintza ez duen gurasoarekin eta familia zabalarekin egoteko bidea erraztea, aitaren, amaren eta seme-alabaren arteko harremana ere gainbegiratu daitekeen inguru batean.
 - Orientazio profesional zehatza eskaintzea aitaren, amaren eta seme-alabaren arteko harremanak eta hazkuntza-gaitasunak hobetzeko, eta baliagarriak izan daitezkeen beste baliabide batzuei buruzko informazioa ematea, haiekin koordinatzea eta haietara bideratzea.
 - Larritasun handiko kasuetan, gurasoek zer jarrera duten jakiteko informazioa biltzen da, eta beharrezkoa dela ikusten bada beste instantzia administratibo edo judicial batzuetara aldatzen da.

4.3. Esparru poliziala

Ertzaintza

Etxe- eta genero-indarkeria prozesua:

- **Etxeko indarkeriako edo genero-indarkeriako ustezko egintza bat gertatu den jakiteko**, ezinbestekoa da biktimak, familiako batek, lekuko batek edo antzekoren batek egintza hori izan dela esatea. Horrelakoetan, jarduera bat irekitzen da beti, aplikazio informatikoan, eta kasuari buruzko ahalik eta informazio gehien jasotzen da. Gertatutakoaren berri **telefono dei baten bidez ematen bada**, datuak ematen ari denari zer gertatu den kontatzeko eskatzen zaio, osasun-baliabiderik behar den adierazteko, armarik edo bestelako objektu arriskutsurik erabili den edo mendeko den adingaberik tartean badagoen azaltzeko. Era berean, jarraibide batzuk ematen zaizkio biktimari, hala nola erasotzaileak erabiltzeko modukoak izan ditzakeen objektu arriskutsuak paretik kentzeko, gertaerak izan diren tokian dagoen ezer ez ukitzeko begizko ikuskapena errazago egin dadin, edo adingabeak babesteko, adingaberik izanez gero. Sexu-erasorik izan bada, arropa ez garbitzeko eta ez botatzeko, edozein aztarna gordetzeko eta Ertzaintzaren patruilaren zain leku seguru batean egoteko eskatzen zaio.
 - Etxeko indarkeria edo genero-indarkeria kasu bat izan dela jakiten den unean, gertaera izan den lekutik gertuen dagoen baliabidea esleitzen diote jarduerari polizia-arduradunek, eta ezagutzen diren egoerei eta beharrezko egoera guztiei buruzko informazioa jasotzen da, **biktimaren arretarako** lehenengo jarduerak seguruak eta eraginkorrak izan daitezen.
 - Gertaera neutralizatu ostean, biktimak lesiorik ez badu eta osasun-arretarik behar ez badu, salaketa jar dezakeela eta babes-agindu bat eska dezakeela esaten zaio, eta, horretarako, doako abokatu-laguntza jasotzeko eskubidea duela azaltzen. Gainera, laguntza ekonomikoa, psikologikoa, soziala eta lege-aholkularitza jasotzeko zerbitzuak daudela adierazten zaio, eta biktimei laguntzeko zerbitzuen telefono-zenbakiak ematen zaizkio.
- Biktimak lesio fisikoak baditu, oso txikiak izanagatik ere edo nabaritu ere egiten ez badira baina egon daitezkeela susmatu, ospitale batera eramaten da (ez, ordea, biktimak espresuki joateari uko egiten badio).
- Biktimak **adingabeak baditu bere kargura**, eta haiak zaindu ezin dituen bitartean, adingabeen zaintza eta segurtasuna bermatuko duen pertsonaren edo erakundearen tutoretzapena jarriko dira.
 - Ofiziozko **abokatu bat izateko eskubidea** duela esaten zaio biktimari, eta, nahi izanez gero, **salaketa bat jartzeko aukera** duela; **babes-agindu bat zer den ere azaltzen zaio, eta hori eskatzeak zer ekarriko dion ere bai**. Eskaera hori, 24 ordu baino lehen, epaitegira bideratzen da horretarako irekitako eginbideekin batera.

Horretaz gain, erasotzaileak dituen aurrekari polizialen berri ere ematen zaio epaitegiari, bereziki delitu-mota honi buruzkoak.

- Kasu bakoitzarekin, hasiera-hasieratik, espediente bat irekitzen da; hain zuzen ere, **Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espediente**a. Hor kasuaren barruan sortzen den informazio guztia eta biktimekin zein erasotzaileekin egindako jarduera guztiak jasotzen dira, kronologikoki eta polizia-jarduera eta -zereginen arabera ordenatuta. Etxeko indarkeria edo genero-indarkeriako gertaera bat errepikatzen denean, eta aurretik espediente bat irekita baldin badago, espediente horretan erregistratuko da gertaera berriari buruzko informazioa ere. Ezinbestekoa da hori egitea, behar izanez gero beste indarkeria-gertaera bati aurre egin ahal izateko.
- **Arrisku-maila balioestea eta babes-neurriak ezartzea** funtsezko atala izaten da, gerta daitezkeen erasoak prebenitzeko eta behar diren polizia-neurriak erabilia biktimak babesteko. Arriskua balioesteko 20 arrisku-adierazleri erantzun behar izaten zaie. Adierazle horiek ateratzeko benetako 1000 kasu baino gehiago aztertu dira zehatz-mehatz. EHUko diziplina anitzeko lantalde batek gainbegiratuta egin da lan hori. Balioespen horren ondorioz, kasuak zer “arrisku-maila” duen kalkulatu da. Izan daiteke **oinarrizkoa, altua** edo **berezia**. Egokiak diren babes-neurri polizialak aplikatzen zaizkio horietako bakoitzari.
- Kasuaren arabera eta arrisku-maila bakoitzaren arabera, **babes-neurri polizial** hauek ezar daitezke: kasu guztietan, norberak bere burua babesteko neurriei buruzko prestakuntza, eta arriskurik handieneko kasuetan, berriz, etengabeko zaintza eskaintzea, tartean direla zenbait prebentzio-jarduera, babes-ekintza zehatzak, biktimei ausazko bisitak egitea, erasotzailea zelatatzea eta jazartzea, telefonoz ausazko egiaztapenak egitea, data jakinetan lekualdaketak egiten laguntzea eta konpainia egitea eta abar.
- Prozesu guztiari **egiten zaio jarraipena eta prozesu guztia kontrolatzen da**; azterketak eta hobekuntzak egiten zaizkio, tresna eraginkorra eta fidagarria izan dadin. Horretarako, sarrera-datuetan akatsik ez izateko sistemak eta aplikazio informatikoetara sartzeko kontrolak erabiltzeaz gain, prozesuan zehar ere kontrolak egiten dira “kontrol-plan” bati jarraituz. Hor definitzen dira kontrolatu beharreko faseak edo jarduerak, arduraduna nor den eta zer kontrol-metodo erabiliko den. Detektatutako edozein eratako “**desadostasunak**” berehala zuzentzen dira, eta dena delako desadostasunek nahikoa funts badute, zuzenketa- edo prebentzio-ekintza orokor bat jartzen da abian, ezarrita dagoen prozeduraren bidez. Era berean, **barne auditoretzak** egin behar direla dago ezarrita sisteman. Kasu horietan, sistemak zer aplikazio eta eraginkortasun-maila duen ebaluatzen dute auditore independenteek auditoretza egingo zaien unitateetan.
- Tresna bat garatu da etxeko indarkeria eta genero-indarkeria kudeatzeko sistema hobetzeko, zeinetan **Ertzaintzak etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimei eman dien erantzunarekin jendea gustura geratu den jakiteko** informazioa ematen den. Inkesta bat egiten da telefono bidez, bi galdera-sorta bereizi erabilia.

4.4. Osasun-eremua

“Tratu txarrak haurtzaroan eta nerabezaroan, eta haietatik babestea” izeneko protokoloa du Osakidetzak. Osasun-sistemaren, gizarte ongizatearen, alor juridikoaren eta zuzenean edo zeharka adingabeak artatzen dituzten erakundeen artean egin zen protokoloa.

Protokoloarekin batera, osasun-arloko langileak sensibilizatu ziren. Kasua gizarte-ongizatearen sisteman ez salatzen dagoen ohiturari aurre egitea da helburua.

Ospitale bakoitzean tratu txarrez arduratzen den erreferentziazko pediatria bat dago. Pediatria horri jakinarazten zaizkio tratu txarren susmoak.

- Detektatzea.
 - Indarkeria fisikoa izan den kasuak detektatzen dira.
 - Ospitalez kanpoko haurren osasun mentaleko zerbitzuak eta pediatrik gizarte-zerbitzuetara bidera dezakete kasua.
 - Haurra ospitalera indarkeria jasan izanaren seinale fisiko nabarmenekin iristen denean, gizarte-zerbitzuekin jartzen da harremanetan ospitaleko mediku arduraduna.
 - Indarkeria-kasu argi bat bada, ospitaleratuta utzi daiteke haurra, prebentzio moduan, eta ospitalean edukiko da kasu zehatz horretan nola jardun erabaki bitartean.
 - Pediatrik eta familia-medikuak elkarrekin jardun behar dute, eta elkarrekin erabaki, gizarte-zerbitzuei eman behar dioten susmoaren berri.
 - Haurrekin egingo da lan (detektatzea, tratamendu fisikoa eta emozionala), eta, bereziki, tutoretza aldundiek dutenekin edo gizarte-langileak bere kargu dituenekin.
 - Bizi-arriskurik izanez gero, epaileari jakinarazi behar diote osasun-profesionalek.
- Laguntza psikologikoa. Beharrezkoa dela ikusten bada, ospitaleak berak bideratuko du ospitale barneko edo kanpoko osasun psikologikora.
- Prestakuntza. Osasun-arloko langileei genero-indarkeriaren arloko 30 orduko prestakuntza eskaintzen zaie (haurtzaroa eta genero-indarkeriaren biktime diren haurrak ere hartzen ditu kontuan). Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak garaiz detektatzen ahalegindu behar dela azpimarratzen da. Prestakuntza ez da nahitaezkoa.
- Genero-indarkeriaren biktime den emakumea detektatzea errazagoa izaten da biktime diren seme-alabak detektatzea baino.

4.5. Hezkuntza-eremua

Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Berritzegunearekin izandako bileren bidez jakin da bi erakundeak bat datozela esatean irakasleek genero-indarkeriaren biktimatzat jotzen dituztela hala diren haurrak, hori horrela denik onartzeko legerik ez dagoen arren.

Era berean, adierazi behar da badagoela genero-indarkeriaren biktima diren haurrak detektatzeko idatzi gabeko prozedura bat, non ikastetxeak eta hezkuntza-ikuskaritzak parte hartzen duten. Ikastetxeak edo ikuskaritzak gizarte-zerbitzuei ematen die kasuaren berri. Hala ere, ikusten da elkarrekin lan gehiago egin beharko luketela gizarte-zerbitzuek eta ikastetxeak. Familia bati laguntza ematen ari direla eta genero-indarkeriaren biktima diren haurrak edo nerabeak identifikatu edo nabaritu dituztela esan behar lieke gizarte-zerbitzuek ikastetxeei, elkarren artean adingabeari laguntza hobea emateko.

Gizarte-zerbitzuek egoera horretan dauden haurrak edo nerabeak detektatzen ez badituzte, zaila izaten da hezkuntza-eremuak detektatzea.

Ikastetxeak funtsezko izaten dira indarkeria kasuak prebenitzeko eta detektatzeko. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatuta orain gutxi onartu den **Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak** jardute-protokoloak, detekzio-protokoloak eta adierazleak sortzea aurreikusten du.

Planaren zeregin garrantzitsuenetako bat da:

- **“Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko”** (ikusi planaren 24. orrialdea).
- **“Hezkidetzak batzordea”** sortzea, koordinazio eta partaidetzarako egitura izango baita eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartuko baitu bertan.
- Ikastetxean erreferentziazko pertsona bat izatea berdintasun eta hezkidetzak gaietarako. Horretaz gain, eskola-kontseiluan berdintasunaren arloko ordezkari bat egon beharko litzateke.
- Detekzio goiztiarraren esparruan (ikusi planaren 29. orrialdea), zaugarritasun handieneko taldeetat jotzen dira **“genero-indarkeriaren biktima direnen seme-alabak”**.

5. ARRETA-PROZESUAREN BALIOESPENA

Diagnostiko honen helburua da genero-indarkeriaren biktima den haurra edo nerabea azterketaren erdigunean jartzea, biktima gisa bizi duen bide osoan. Bide hori prebentzioarekin hasi dugu; detektatzea izan da hurrengo urratsa; bideratzea, gero, eta gizarte-baliabideak erabilia arreta ematea ondoren. Justizia eremuak haur eta nerabeen eskubideei zer erantzun



ematen dien aztertuta bukatu dugu. Haurren Eskubideen Hitzarmenean eta EAEko lege-eremuan daude jasota eskubide horiek.

Hemendik aurrera arreta-prozesuari buruz egiten den balorazioa Save the Childrenena da, espresuki beste pertsona edo erakunde bat aipatzen ez bada.

5.1. Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Eusko Jaurlaritzak “Amaiera eman amesgaiztoari” kanpaina abiarazi zuen 2011n genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere indarkeria horren biktima direla ikusgai jartzeko. Euskadin lehen aldiz, haurrengan jarri zen arreta, eta indarkeria horren biktima gisa onartu ziren.

Erakundeek lanean jarraitu behar dute genero-indarkeriaren arloan biktima bakar bat soilik ez dela izaten agerian jartzeko, eta haurrak genero-indarkeriaren eraginpean bizitzeak zer ondorio izan ditzakeen hedatzeko eta sentsibilizatzeko.

Berdinsareak, berdintasunaren aldeko EAEko udalerriek osatzen duten sareak, Beldur Barik! urteko programa atera zuen 2009. urtean; gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko egiten den programa oso bat da. EAEko erakunde guztiak babesten eta bultzatzen dute programa hori: Eudelek, Emakundek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak. Horietaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta EITBk ere hartu dute parte ekimenean.

Programan ekintza hauek sartu dira, besteak beste: sentsibilizazio- eta hedapen-ekintzak EAEko ikastetxeetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Beldur Barik! izeneko topaketa gazteentzat, prestakuntza-lantegi, eztabaida eta jolas-jarduerekin.

Genero-indarkeriaren eraginpean hazten ari diren haur eta nerabeen egoera espezifikoak Beldur Barik programan sartzeari aukera ona litzateke neska-mutilak askotan ezagutu ere egiten ez duten eta batzuetan biktima ere izaten diren errealitatera inguratuzko.

Emakundek NAHIKO programa jarri zuen abian 2003an; berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza lortzeko hezkidetzeta-programa bat zen. Gaur egun ere programa horrekin lan egiten da. Programa giza eskubideetan oinarritzen da, eta helburu du hezkidetzaren bidez emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen lan egitea hezkuntzaren eremuan. Azken urteotan egindako lanaren jarraipena da, eta hezkidetzeta bultzatzeko beste urrats bat da.

NAHIKO programaren oinarrian daude esperimentazioa, ikerketa eta ikasle, ikastetxeetako irakasle eta familiekin batera egin beharreko jarduerak.

Prebentziorako eta sentsibilizaziorako, ezinbestekoa da osasun- eta hezkuntza-eremuen partaidetza; izan ere, eremu egokienak dirudite haur horiek errazago detektatzeko eta genero-indarkeriaren eraginpean hazteak haien eboluzio-garapenean nola eragiten duen jakiteko eta aztertuzko.

Pertsona guztiak nahitaez eskolatu behar direla kontuan hartuta eta gehienak, gainera, ikastetxeetan hezten direla, ezinbestekoak dira ikastetxeak genero-indarkeria prebenitzeko. Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Eusko Jaurlaritzaren Gida Planak adierazten duen moduan, “eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko behar diren aldaketak eginez. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetu”.

Era berean, ezinbestekoa da zuzenean edo zeharka haurrekin bizi edo haiei laguntzen dien eremu desberdinetako profesionalak genero-indarkeriaren arloan sentsibilizatzea, prebentzioan lagunduko baitu eta, dudarik gabe, erraztu genero-indarkeriaren biktima diren neska-mutilak garaiz detektatzen.

Ezinbestekoa da, halaber, epaileak eta operadore juridikoak sentsibilizatzea eta prestatzea jakin dezaten genero-indarkeriaren eraginpean bizitzeak zer nolako eragina izan dezakeen eta hala bizitzeak haurren bizitzetan zer ondorio uzten dituen.

Garrantzitsua da azpimarratzea salaketa bat jarri delako edo gizarte-zerbitzuek edo beste arreta-eremu batzuek familian genero-indarkeriako egoera detektatu dutelako genero-indarkeriaren biktima den emakumearentzako arreta-sisteman sartu diren haurrei ematen zaien arreta aztertu dela diagnostiko honetan. Baina azterketa honetatik kanpo geratu dira detektatu gabeko edo ikusezin izaten diren haur guztiak.

Bilboko Udalaren **Umeen Negoziatuak** gizarte eta hezkuntzaren eta komunitatearen arloetan esku hartzeko programa du (PISEKO). Prebentziozko programa eta programa hezitzailea da nagusiki, eta 0 eta 18 urte bitarteko adingabeei eta haien familiakoei zuzendurik dago, bereziki arrisku-egoerak agertzeko bidea ematen duten faktore eta egoerak bizi dituzten adingabeei.

Programa horiek ingurune irekian jarduten duten hezitzaileek eta familian jarduten duten hezitzaileek kudeatzen dituzte; adingabeak bere familian irautea bultzatzen dute, eta, beraz, haien beharrak asetzeko laguntzarik egokiena ematen saiatzen dira.

Era honetako programek genero-indarkeria gertatzen ari, salatu ez eta gizarte-zerbitzuek gertatzen ari denaren berri ez duten familia-kasuak detektatzen laguntzen dute.

Prebentzioari dagokionez, kezkarik gehien sortzen duen gaietako bat da genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzuetara jotzen duten neska-mutilen datu homogeneo eta bateraturik ez dela erregistratzen. Datu homogeneorik ez izateak eta erregistroaren heterogeneotasunak zaildu egiten du jakiten zenbatekoa den arazoa eta, ondorioz, Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haurrei arreta emateko zenbat baliabide behar den.

5.2. Detektatzea eta bideratzea

Osasun- eta hezkuntza-sistemek eginkizun esanguratsua izan behar lukete genero-indarkeriaren eraginpean bizi diren haurren kasuak detektatzeko, bereziki hezkuntza-sistemak, haurrek

ikastetxeetan ordu asko igarotzen dituztelako eta irakasleek ikasleek zer egoera bizi duten jakiten dutelako.

Osasun edo hezkuntzaren arloko profesionalak genero-indarkeriako egoera bat gertatzen ari dela susmatzea bakarrik nahikoa izan behar litzateke gertuen dituzten gizarte-zerbitzuei jakinarazteko eta koordinazio- eta bideratze-protokolo bat abian jartzeko. Hala ere, osasun eta hezkuntzaren arloko profesional batzuei ez zaie gustatzen susmo horien berri ematea.

Osasun-sistema

Oso gutxi bideratzen dira lehen mailako arretatik eta arreta psikiatrikotik gizarte-zerbitzuetara. Tratu txarrak detektatzea profesionalen araberakoa izan ohi da.

Zailtasunak nabari dira pediatrian kasuak detektatzeko eta jarduteko. Pediatriako ekintza bakar batean zaila izaten da genero-indarkeriaren biktima diren haurrak identifikatzea eta detektatzea.

Zailtasun horretan laguntzen du arreta psikiatriko eta psikologikoaren eskariari erantzuteko behar adina langile ez izateak. Hori da, esaterako, osasun mentaleko zentron kasua, haur-psikiatra eta -psikologo gutxi baitituzte.

Bada beste arazo bat ere mediku-jarduerari trabak jartzen dizkiona: familia-medikuak genero-indarkeriaren kasu bat izan daitekeena detektatu, baina emakumeak tratu txarrak jasotzen dituela sentitu ez eta, beraz, bere seme-alabek ere tratu txarrak ez dutela jasotzen pentsatzea, edo genero-indarkeriaren biktima den emakumeak (amak) eskatzea ez diezaiotela bere egoeraren berri beste baliabide batzuei eman.

Ospitale mailan nahiz ospitaletik kanpo ahalegina egin beharko litzateke medikuek inor genero-indarkeriaren eraginpean egon daitekeela gizarte-zerbitzuei jakinarazi nahi ez izatea saihesteko edo harekin apurtzeko (hala bada).

Pediatriak kalte psikologikoko ebidentziak detektatzen baditu, eta arrazoi organiko edo biologikoagatik izan daitekeela baztertu, eta, hortaz, genero-indarkeriarengatik izan daitekeela uste badu, gizarte-zerbitzuei adierazi behar lieke zer susmo duen. Osasun-arloko profesionalak alde batera utzi behar dute gizarte-zerbitzuei haien susmoen berri eman nahi ez izatea, eta, aldi berean, gizarte-zerbitzuek beren adierazleetan sartu behar dute osasun-eremutik jasotako susmoak egotea.

0-6 urte bitarteko haurrak mediku-kontroletara joan ohi dira aldi behin. Txertaketarekin eta elikadurarekin izaten dute zerikusia kontrol horiek. Haurra ez bada dagokion mediku-kontsultara etortzen, susmo-seinale bat izan daiteke. Pediatriako erizaina funtsezkoa da indarkeria detektatzeko. Harremanetan egoten da etengabe familiarekin, haurra ezagutzen du eta haren ibilbideari eta bilakaerari adi egoten da. Horrenbestez, arreta jarri beharko liokete edonolako susmo-seinaleri, eta jakinarazi.

Indarkeria-egoerak garaiz atzemateko, ezinbestekoa da pediateraren edo familia-medikuaren kontsulten denbora luzatzea.

Osasun-sistemak hurrek jasaten dituzten tratu txarrak antzemateko eta haien babesteko protokolo bat du. Protokoloa garai berrietara egokitu behar da, eta berriz ere (bere garaian egin zen bezala) aurrez aurreko hedapena eman behar zaio. Une ona litzateke genero-indarkeriaren eraginpean egotea tratu txar bat dela jasotzeko.

EAEko Erakunde Sanitario Integratua (ESI) egokia dela irizten da. 2014ko hasieran jarri zen abian. Lehen mailako arreta eta arreta espezializatua hartzen ditu. Paziente bakoitzeko espediente bateratu bat du (balorazio oso positiboa egin zaio detekzioarako, erregistratuta geratzen baita indarkeria-susmoa sistema horretan. Horretaz gain, bateratu egiten ditu historia klinikoak).

Aztertu beharko litzatekeena da arreta-sistemak (gizarte-zerbitzuek) feedbackik baduten kasua detektatu duen sistemekin, jarraipena modu koordinatuan egin ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Osakidetzari jakinarazteko duen protokoloak jardunbide egoki bat izan behar du, eta hedatu eta hobetu egin behar litzateke.

Hezkuntza-eremua

Zailtasunak izaten dira genero-indarkeriaren biktima diren haurrak eta nerabeak ikastetxeetan detektatzeko, profesionalen prestakuntza eta sentsibilizazio faltagatik. Tratu txarrak detektatzea profesionalen araberakoa izan ohi da. Horregatik, funtsezkoa da ikastetxeetako langileak sentsibilizatzea eta prestatzea hurrek eta nerabeek jasaten duten genero-indarkeria prebenitzeak eta detektatzeak duen garrantziari buruz.

Era honetako egoerak detektatzea konplexua izaten denez, irakasleei baliabideak eman behar zaizkie, bai prestakuntza-baliabideak bai beste era batekoak, hala nola materialak, metodologiak eta abar, ikasleekin gelan egiten den lanaren bidez horrelako egoerak errazago detekta daitezten (sexu-abusuen kasuan gertatzen den bezala).

Ikasleak behar adina informazio eta prestakuntza izan behar du indarkeria egoera “ez normal” bat dela identifikatzen jakiteko eta irakaslea eta ikastetxea laguntza-baliabide gisa ikusteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bide beretik, adierazten du ikasgelan laguntza psikologikoa emateko foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hitzartu duten programa baliagarria izan daitekeela genero-indarkeriako kasuak detektatzeko.

Ikastetxeek ez dute genero-indarkeriaren biktimak detektatzeko protokolorik, ez eta segurtasun-arrazoiengatik ikastetxez aldatu behar izan duten haur eta nerabeak hartzeko protokolorik ere.

Hezkuntza-eremuak garrantzia hartzen du haurren arretan, behin haurren egoera ikusgai jarri eta gizarte-zerbitzuetan tratatzen ari direnean. Alde horretatik, eta Bizkaiko Foru Aldundiak proposatzen duen bezala, haurren egoera aztertu, irakasleei hurrei laguntzeko behar dituzten jarraibideak eman, eta ikasturterako lan-plan bat egin beharko litzateke.

Berritzeguneak esaten duenez, arreta berezia jarri behar zaio ikastetxe zaharretik berrira aldatzeko trantsizioari, haurrarentzat traumatikoa izan baitaiteke. Ikastetxe berrira iristen direnean, laguntza psikologikoa eduki beharko lukete haurrek, seguru eta babestuta senti daitezten.

Nahitazko eskolatzeko-adinean dauden haurrak eta nerabeak matrikulatzeko zailtasunak nabaritu izan dira.

Azken urteetan, horrelako kasuak detektatzeko, bideratzeko eta artatzeko aurrejoera eta sensibilizazio handiagoa dago hezkuntza-eremuan. Diagnostikoa egiten aritu garen bitartean egin ditugun elkarrizketetan zein Erakundearteko Talde Teknikoarekin izandako bileran adierazi da prozesu honek balio izan duela hezkuntza eremua zer garrantzitsua den ikusgai jartzeko.

Hezkuntza-eremuan genero-indarkeriaren biktima diren neska-mutilak detektatzeko, bideratzeko eta arreta emateko protokoloak martxan jarrita, jauzi kualitatiboa emango litzateke, eta eragin oso positiboa izango luke biktima diren haur eta nerabeengan.

Gizarte-eremua

Elkarrizketatu diren erakunde batzuek adierazi dute eskura dauden balioespen-tresnak ez daudela genero-indarkeriak haur eta nerabeengan duen eraginari begira.

Balioespena egiteko **“Balora”** babesgabetasuna ebaluatzeko tresna erabiltzen da. Tipologia-eta maila-eskala bat du. Tipologiari dagokionez, *“bikote arteko edo bizikidetzaren unitateko kideen arteko indarkeria-egoeren eraginpean egotea”* adingabearen **tratu txar psikikoaren** osagai dela esaten da Baloran, besteak beste.

Bere garaian Balora jardunbide oso egokitzat hartu zuten estatu mailan, lehendabiziko aldia zelako genero-indarkeriaren eraginpean egotea tratu txar psikologiko bat zela adierazten zena.

Gaur egun, ordea, aztertu eta eguneratu egin beharko litzatekeela adierazi dute elkarrizketatutako zenbait profesionalak, oraindik falta zaion genero-ikuspegia eta familia barruan amek jasandako indarkeriak adingabeengan eragiten duen kaltearen adierazleak sartzeko. *“Irizpide psikometrikoa ezartzen bada zentzuz egin behar da. Horrenbestez, hobetu egin behar da Balora, eta indarkeria-mota guztiak neurtu: kalte emozionala, lotura eta abar. SARA izan daiteke adibide bat. Balorak froga psikometriko zehatzak eduki behar ditu, indarkeria era zabalagoan balioesteko”*. Psikologoa.

Horrenbestez, Balorak ez luke tresna bakarra izan behar; tresna psikologiko batzuk eta beste eskala batzuk (gurasoen gaikuntza) ere izan behar lituzke, indarkeriaren eragina balioesten laguntzeko, eta modu horretan diagnostiko hobea lortzeko.

Polizia-eremua:

Ertzaintza

Oro har, Ertzaintza kontzientziatuta dago genero-indarkeriaren biktima gisa hartzeko genero-indarkeriaren biktima diren haurrak; hala ere, emakume biktimaren seme-alaba gisa artatzen dituzte, eraso zuzenean jaso dutenean izan ezik. Legeak haurrak eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima gisa onartzen ez dituen bitartean, Ertzaintzak indarrean dagoen legeriaren arabera jardun behar du.

Horrenbestez, eta baliabideak deskribatu direnean zehaztu denez, salaketak idazten dituztenean ez dute jasotzen adingabeak zer egoeratan dauden, emozionalki zer adierazten duten, hitzez zer adierazten duten eta abar jakiteko informazio zehatzik; baina informazio hori garrantzitsua dela uste da neska-mutil horiek genero-indarkeriaren biktima gisa ikusteko.

Badago arazoa bat haurren arretaren arloan. Asteburuetan, gizarte-zerbitzuen laguntza izateko arazo gehiago izaten da, eta, zenbait kasutan, gauetan ere haurren zaintzaz arduratu behar izaten du poliziak. Langileek ez dute haurren arloko prestakuntza espezializaturik, eta ez dakite benetan zer ondorio duen haurrentzat genero-indarkeriaren eraginpean bizitzeak.

Ertzainek diote komeniko litzatekeela haurretan espezializatutako langileak izatea hurrei konpainia egiteko, amarekin kudeaketak egin behar direnean.

Arreta-baliabideek zein eremu judizialak oso positiboki balioetsi dute genero-indarkeriaren biktimen arretarako Ertzaintza egiten ari den lana. 2013an emakume biktimei buruzko 4000 polizia-atestatu baino gehiago egin ziren. Atestatueta zehaztasun eta informazio asko jaso zen, eta oso baliagarria da arreta-prozesu osorako eta judizializaziorako.

Udaltzaingoa¹

Haurrak genero-indarkeriaren biktimatzat jotzen dira: “haurrak badaude beti dira biktima”.

Esku-hartzeko jardueretan beti saiatzen dira egoera ahalik eta gehien minimizatzen, haurrak daudelako.

Udaltzaingoak egiten dituen atestatueta, hurrek zer jarrera duten jasotzen da, nola dauden galdetzen zaie eta neska-mutilak etxeko indarkeriaren lekuko izan diren jakiteko informazioa biltzen da; izan ere, lekuko izatea astungarri bat da prozesu judizialean. Gizarte-zerbitzuek tartean nahasia dagoen familiari arreta emateko balio dezake atestatuak.

Polizia amaz arduratzen ari den bitartean, haurtzaindegi bat dute neska-mutilez arduratzeko.

Zuzenean, udaleko gizarte-zerbitzuekin eta aldundiaren haurren zerbitzuarekin jarduten dute (konpainia zerbitzua, zerbitzu psikologikora bideratzea, abegi-etxea). Genero-indarkeriaren

¹ Gasteizko Udaltzaingoa elkarrizketatu da diagnostikoa egiteko.

biktima diren emakumei eta seme-alabei zuzendutako jarduera-protokolo bat dute. Arreta genero-indarkeriaren biktima den amarengan zentratzen da, baina seme-alabak baditu, sarean lan egiten du indarkeriaren arloko taldeak gainerako baliabideekin eta gizarte-zerbitzuekin, azken horiek haurren ardura har dezaten.

5.3. Arreta

Etxean genero-indarkeriaren eraginpean bizi den haurra eta nerabea indarkeria horren biktima gisa onartzeko adostasunik gabe jarraitzen dugu. Egia esan, diagnostiko hau egiten aritu garen bitartean zenbait erakundek aitortu dute zalantzak dituztela onarpen hori egiteko (nahiz eta bakar batzuk baino ez izan).

Psikologoek Gipuzkoako Elkargo Ofizialak genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen ditu haur eta nerabe horiek. Hala ere, haur eta nerabe horiek elkargo horren arreta psikologikoa jaso ahal izateko, ezinbestekoa da guraso-ahala duten aita-amaren baimena izatea, adingabe hori babesteko erabaki judizialik ez badago.

Gizarte-eremua – Arreta-baliabideak

Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateak eta arriskuan edo babesgabe dauden hurrez arduratzeak eremu desberdinak hartzen jarraitzen du neurri handi batean; hala ere, ahalegin handia egiten ari gara indarkeria hori ikusgai jartzeko, arreta emateko eta babesa eskaintzeko aurrera egiten eta hobetzen.

Aurrerapen nabarmenak egin badira ere, genero-indarkeriaren aurkako borrokara bideratutako baliabideek (kasurik gehienetan) haien esku hartzea bideratuta dagoen taldeari laguntzen jartzen dute arreta gehienbat, hau da, emakume biktimei laguntzen. Haurrei laguntzeko baliabideek, berriz, arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden haurrei eta nerabeei laguntzen jartzen dute arreta. Funtsezkoa da bi sistemak koordinatzea eta esku-hartzeak gurutzatzea, haurraren interes gorenaren mesederako, haurra babesteko eta eragindako kaltea konpontzeko.

Esku hartzeak erantzun espezifikoak eman behar dizkio neska-mutilen sufrimenduari. Esku-hartze instituzional horrek emakumea bere onera etortzeko eta ahalduntzera bideratutako eta haurrak eta familia-sistema bere onera etortzeko jarduerak eduki behar ditu.

Udaletako gizarte-zerbitzuek ikuspegi zabal bat eduki behar dute, “haurraren ikusi duenetik begiratu behar diote familiari”.

Funtsezkoa da oinarrizko gizarte-zerbitzuek genero-indarkeriaren biktima diren haurrak hasierako fasetan detektatzea eta prozesua haiekin batera egitea.

Emakumeen eta haurren zerbitzuek elkarrekin balioetsi behar dituzte genero-indarkeriaren biktima diren haurrak. Esku-hartzeak kontuan hartu behar du neska-mutilen iritzia.

Egia bada ere azken urteetan aurrerapen nabarmenak egin direla eta “*Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik*” *Euskadiko Txostena (2012ko iraila)* liburua argitaratu zenetik gaiarekiko

sentiberatasun handiagoa dagoela, haurrak eta nerabeak, gehienetan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba gisa hartzen dituzte, babes-objektu gisa eta ez ESKUBIDEEN TITULAR gisa. Normalean, alor desberdinetako profesionalek eta arreta-sistemek balioesten dituzte eta haien laguntza jasotzen dute (emakumeak eta hurrek). Emandako arretaren kalterako izan daiteke sistema eta profesional batek baino gehiagok parte hartzea, eta, era berean, gainera, kalte egin diezaielako haur eta nerabeei eta familiei, baldin eta sistema eta profesional horiek guztiek ez badute era koordinatuan lan egiten.

Elkarrizketatutako zenbait foru-baliabidetan adierazi dutenez, zenbaitetan haurrak eta nerabeak amekin egiten den esku-hartzearen bitartez balioesten dira soilik. Eta, beraz, ez zaien banaka heltzen.

Alde horretatik, oso balorazio positiboa egin zaie jarraian datozen baliabide hauei, zeinak jardunbide egoki izateko kontuan hartzekoak diren.

- Gasteizko Udalean koordinatuta jarduten dute Udaltzaingoak, haurraren zerbitzuek eta berdintasun-zerbitzuek, eta oso emaitza eraginkorrak ematen ari da hurrei emango zaien arreta bermatzeko, kasu bakoitzeko plan bat baitago. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei eskaintzen zaien zerbitzuen eta baliabideen sistemaren barruan, hala nola larrialdiko abegia, egonaldi ertaina, laguntza psikologikoa, juridikoa eta abar, familia-unitate bakoitza hartzen da osorik, eta bereizi egiten dira kide bakoitzak dituen behar espezifikoak, adingabeak barne. Biktima den emakume baten seme-alabak ere biktimatzat jotzen dira, bai tratu txar zuzena jaso badute bai amaren kontrako indarkeriaren lekuko izan badira.
- Tratu txarren biktimei arreta osoa emateko Bizkaiko Foru Aldundiaren egonaldi ertain-luzeko abegi-zentroak lan espezifiko bat egiten du amarekin etxe horietara sartzen diren seme-alabei laguntzen, adingabe horiek beren familietan bizi izan duten tratu txarraren zuzeneko biktimatzat hartuta bideratzen baita lan hori. Baliabide horren barruan Banakako Hezkuntza Proiektua gauzatzen da; haur eta nerabe bakoitzaren adinera egokitzen da proiektua, eta bakoitzak dituen baliabide pertsonaletan oinarritzen da, arazo problematikoak eta gabeziak eta haien baliabide pertsonalak lantzeko. Behaketa-aldian honako alderdi hauek ebaluatzen dira: oinarritzko ohiturak, bizikidetzako-ohiturak eta familia-harremanak, alderdi biologikoa, afektiboa, psikosoziala, aisialdikoa, ekonomikoa eta etxebizitza, eremu juridikoa eta psikopedagogikoa.

Bi kasuetan, hurrei eta nerabeei ematen zaien arretari heltzeko moduan bilakaera positiboa izan bada ere, nabarmendu behar da hobetu egin behar dela hurrekin lan egiten duten profesionalen prestakuntza eta trebakuntza, indarkeriaren eraginpean egoteak haurrengan eta nerabearengan duten berehalako eraginaz haratago doazen balorazio-tresnak erabili behar direla, eta kontuan hartu behar dela haurraren eta nerabearen iritzia haiei eragiten dien erabakiak hartzerakoan.

Legeak haurrak eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima gisa ez jotzeak zailtasunak dakartza hurrei eta nerabeei arreta emateko eta haiek babesteko (segurtasuna). Zailtasun horiek agerian geratzen dira zenbait kasutan kontraesanegotien direlako guraso erasotzailearen informazio-eskubidea (ikastetxea zein den jakitekoa, datu akademikoak, osasun-egoera) eta erabakiak hartzeko eskubidea (arreta psikologikoa jasotzeko, ebakuntza kirurgikoak egiteko,

abegi-zentroen helbidea eskatzeko errekerimendu judizialerako eta agirien izapideetarako aitaren baimena) eta haurren eta nerabeen segurtasuna, babesa eta eskubideak.

Elkarrizketatutako erakunde batzuk oso kezkatuta ageri dira neurri arautzailerik ez dagoelako, bereziki emakumeak (amak) salaketa jarri ez eta seme-alabekin harrera-etxe eta -zentroetan dauden kasuetan. Eta diote, nahiz eta aitak bere seme-alabak ikusteko eskubidea izan, seme-alabek ere badutela bere aita ez ikusi nahi izatekoa. Bisitak ezartzerakoan ez da kontuan hartzen adingabearen interes gorena, eta bai, ordea, aitak bere seme-alabekin bisitak izateko duen eskubidea, eta salaketarik ez dagoen kasuetan edo neurri arautzaileak falta direnetan, profesionalen irizpidea hartu behar izaten da kontuan bisita horiek izatea komeni den edo ez erabakitzeko.

Balioespena

Elkarrizketatu diren erakunde batzuek adierazi dute eskura dauden balioespen-tresnak ez daudela genero-indarkeriak haur eta nerabeengan duen eraginari begira.

Aurretik esan den bezala, **balioespena** egiteko “**Balora**” babesgabetasuna ebaluatzeko tresna erabiltzen da. Tipologia- eta maila-eskala jakin bat du. Tipologiari dagokionez, “*bikote arteko edo bizikidetzaren unitateko kideen arteko indarkeria-egoeren eraginpean egotea*” adingabearen **tratu txar psikikoaren** osagai dela esaten da Baloran, besteak beste.

Horrenbestez, Balorak ez luke tresna bakarra izan behar; tresna psikologiko batzuk eta beste eskala batzuk (gurasoen gaikuntza) ere izan behar lituzke, indarkeriaren eragina balioesten laguntzeko, eta modu horretan diagnostiko hobea lortzeko.

Haurrei ez zaie beti balioespena behar besteko periodizitatez egiten, eta ez da balioesten bizitako traumaren gaintze-maila. Genero-indarkeriaren kaltea balioesteko adierazle eta tresna espezifikoak erabiltzen dakiten talde espezializatuak behar dira.

Talde espezializaturik ez dagoenez, genero-indarkeriaren biktimak diren haurrei eta nerabeei ematen zaien arretak epe luzera zer eragin duen balioesteko azterketarik ez dago. Eta, era berean, agerian uzten du genero-indarkeriak haurrengan eta nerabeengan epe luzera zer eragin izan dezakeen jakiteko ikerketa edo azterketak egin behar direla ere.

Fiskaltzarekin, indarkeriaren arloko epailearekin, Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitatearekin eta Ertzaintzarekin batera egiten den lana hobetu beharra dago, eta prozesu osoan genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen seme-alabak balioestea kontuan hartzen duten protokoloak egin behar dira.

Arreta emateko irizpideak

Oro har, haur eta nerabeek guraso erasotzailearekin izan behar duten erlazioari dagokionez, interes gorena zer den ez da berdin interpretatzen haurrak babesten dituen sisteman eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako sisteman.

Haurren arretarako sistema eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako sistema ez datoz bat haurren eta nerabeen arreta-prozesuan guraso erasotzailea sartu beharrekin. Genero-indarkeriaren biktima den haurrari eta nerabeari emango zaion arreta ikuspegi horren arabera izango da, eta, horretarako, ezinbestekoa da diagnostiko on bat egitea, erasotzailearekin lan egitea egokia den edo ez erabakitzeko. Horrenbestez, eta aurretik esanenez, nahitaezkoa da genero-ikuspegia izango duen balioespen-tresna bat izatea (“Balora”); tresna horrek indarkeriak haurren eta nerabeen garapenean dituen ondorio kaltegarriak agerian utziko dituen adierazleez hornitua behar du izan.

Aita erasotzaileari dagokionez, kontuan hartzekoa da haurrak edo nerabeak bere aitarekin izango duen harremanaren anbiguotasuna, erasotzailea izateaz gain, aita ere izango baitu beti.

Guraso erasotzailea haurren eta nerabeen arreta-prozesuaren parte izatea edo ez, elkarguneetan bisitak egiten direnean egiten den balioespenarekin dago erlazionaturik (*ikusi aurrerago eremu judiziala*).

Haurraren iritzia eta haren bizipenak hartu behar dira aintzat, bai indarkeriak izan duen eragina balioesterakoan, bai interes gorenaren arabera erabakiko den esku-hartzean.

Banakako planetan ezartzen dira indarkeria-kasuetarako zein babesgabetasun kasuetarako baliabideak (hezkontzakoak eta psikologikoak). Plan horretan erabakitzen da gurasoekin lan egingo den edo ez.

Haurraren adinak ezin du mugatzaile bat izan hari entzuteko edo haren iritzia kontuan hartzeko. Beti entzun behar zaio haurrari eta hartu behar da kontuan haren iritzia, adina kontuan hartu gabe.

“12 urtetik gorako haurren iritzia hartzen da kontuan. Txostenean jasota geratzen da iritzi hori eta kontuan hartzen, erabaki bat hartzerakoan.” Haurren arloko teknikaria.

Terapiak lasaibide eta trauma hobeto lantzeko elementuak eduki behar dituzte, hala nola marrazkiak, narrazioak, jolasak eta abar.

Haurren ongizatea eta haien garapen psikologikoa eta fisikoa zaindu behar dira, eta haien beharrak bete.

Amarekin ere egin behar da lan, izan dezakeen erruduntasuna gainetik kentzeko eta bere seme-alabek hohera egin dezaten inplikatu egin behar duela ikusarazteko.

Sistema judiziala

Prozesu judizialean, ikusezin bihurtuta daude genero-indarkeriaren biktima diren haurrak eta nerabeak. Kasurik gehienetan ez dira genero-indarkeriaren biktimatzat jotzen, baldin eta indarkeria fisikorik jasan ez badute. Oro har, genero-indarkeriaren zuzeneko lekukotzat jotzen dira eta ez biktimatzat. Eta biktima gisa ez onartze horrek babes-neurririk ez izatea ekar dezake berekin.



Ikusezintasun hori amak (emakume biktimak) salaketa jartzen duen unetik has daiteke. Salaketa jartzen duen unean emakumeari seme-alabei buruz galdetzen ez bazaio eta hark aipatzen ez baditu, haurrak eta nerabeak biktima gisa kontuan hartu gabe hasten da prozesu judiziala.

Oro har, genero-indarkeriaren biktima diren neska-mutil eta nerabeei ez zaie entzuten eta ez da haien iritzia kontuan hartzen. Argi dago haurretara egokitu behar dela sistema judiziala, eta beste indarkeria-irizpide bat ezarri behar dela genero-indarkeria kasuetan eta dibortzio-prozesuetan haurrak erabiltzen diren kasuetarako.

Nahiz eta operadore juridikoek haurren eta nerabeen balioespenak egin, epaileak eskatutakoaren arabekoak izaten dira; epaileak, ordea, genero-indarkeriaren biktima emakumea dela hartzen du kontuan, eta, horrenbestez, emakumea ebaluatzeko eskatzen du.

Egoera horretan, kontua da epaileak ez diola eskatzen Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitateari haurrak eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima gisa balioesteko. Genero-indarkeriaren biktima den emakumeak zer behar dituen eta zer arrisku dituen balioesten du eskuarki Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitateak, eta hurrek eta nerabeek zer behar dituzten seme-alaba diren aldetik hartzen ditu kontuan, eta ez indarkeriaren ondorioak nozitzen dituen eta arrisku-egoeran dauden biktima gisa. Amak haurrari edo nerabeari eraso egin diotela esaten duenean soilik eskatuko dio epaileak talde psikosozialari alde aurretik eraturako frogata egiteko. Froga hori egin ondoren haurrak jasandako kalteari buruzko beste balioespen bat egingo du talde horrek.

Talde psikosozialak egindako balioespenari buruz, elkarrizketatutako zenbait erakundek azaldu dute ez dela nahikoa denbora izaten haurrei eta nerabeei arreta emateko, eta ezin izaten dutela beti oso balioespen zehatza egin haurren eta nerabeen egoerari buruz.

“Funtsezkoa da haurrei azterketa horiek behin eta berriz ez egitea, adingabearen interes gorenaren mesederako” balioespen-talde bateko langilea.

Epaiketa azkarretan ohikoa izaten da haur eta nerabeek parterik ez hartzea, eta ez da genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen balioespenik izaten.

Prozesuetan, genero-indarkeriaren biktima diren haurrei eta nerabeei eragiten dien neurriak ezartzen dira, hala nola bisita-araubidea eta elkargunea, eta kezkarria da, benetan, neurri horiek ezartzeko garaian haur eta nerabe horien iritzia kontuan ez hartzea.

Eta, gainera, kasu askotan prozesu zibila penala baino lehenago ebatzen da; neurri orokorrak ezartzen dira, betiere guraso ahalaria nagusitasuna emanaz aita erasotzailea den edo ez kontuan hartu gabe.

Elkarguneak

Elkarguneei dagokienez, aldeko eta kontrako iritzia daude. Aldeko argudio gisa esaten da haurrak babesteko mekanismo bat dela, gainbegiratuta dauden bisitak egiten direnez haurrak babesten direla eta operadore juridikoek haur eta nerabeak balioetsi ondoren egiten dituzten txostenetan oinarrituta hartzen dutela epaileek erabakia.

Kontrako argudioek, ordea, esaten dute ez dela haur eta nerabeen iritzia kontuan hartzen, bereziki epaiketa azkarretan, ez baitzaie haur eta nerabe horiei balioespenik egiten. Era berean, genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabe horiek nahitaez joan behar dute familia-elkarguneetara (FE), baita ez dutela joan nahi adierazi badute ere.

Gainera, ulertezina gertatzen da familia-elkarguneak eta haur eta nerabe horien amak babesteko neurriak elkarrekin ematea, urruntze-agindu bat izanagatik ere seme-alabak elkarguneetara eraman behar izaten baitituzte. Zenbaitetan kezka adierazi izan da, familia-elkargune batzuetan sarrerak eta irteerak ez direlako kontrolatuta egoten.

Familia-elkarguneetako langileak dira ondoen balioetsitako alderdi bat. Baina langile horiek beren lana hobeto egin dezaten, informazio garrantzitsu guztia eduki behar lukete, hala nola peritu-txostenak edo langileei beren lana hobeto egiten lagun diezaiekeen edozer (epailea zertan oinarritu den neurri hau agintzeko). *“Zer gainbegiratu behar duten jakitea, zer ikusi behar duten”*.

Familia-elkarguneetako profesionalen gomendioak kontuan hartu gabe eta familia-elkarguneetako hezitzaileek bidalitako txostenei eta proposamenei erantzun gabe hartzen dituzte epaileek erabakiak.

Une honetan, bai elkargunearen bidez bai bisiten araubidearen bidez, aita eta seme-alaben arteko harremanari ematen zaio lehentasuna, eta, kasu askotan, ez da haurren iritzia kontuan hartzen, bereziki ez dutela joan nahi adierazi eta, hala ere, familia-elkarguneetara jo behar dutenean.

Prestakuntza

Funtsezkoa da genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei zuzenean edo zeharka laguntzen dien profesionalek prestakuntza izatea, prebentziorako, kasuak detektatzeko eta haur eta nerabeei arreta egokia emateko.

Elkarrizketa batzuetan adierazi da genero-indarkeriaren biktima diren haurrei eta nerabeei laguntzen espezializatutako profesionalak falta direla.

Era berean, ikusten da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako sistemako profesionalek haurren arloko eta indarkeria horren eraginpean egoteak hurrengan dituen ondorioen, haien eboluzio-garapenean duen eraginaren eta uzten dituen arrastoen arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa behar dutela. Bide beretik, haurrei arreta ematen dien profesionalei ere eman behar zaie genero-indarkeriaren arloko eta indarkeria horrek biktima diren emakumearengan eta amengan izaten dituen ondorio eta eraginari buruzko prestakuntza.

6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

6.1. Ondorioak

Oharra: *etxe-inguruan genero-indarkeriaren biktima diren hurrek eta nerabeek eta haien amek zer iritzi duten jakin gabe atera dira ondorio hauek, eta genero-indarkeriaren biktima izan den emakumerik ere ez da elkarrizketatu ondorioak ateratzeko.*

Genero-indarkeria arazo konplexu bat, egiturazko arazo bat da, eta, funtsean, emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun hierarkikoan oinarritzen da. Desberdintasun hori kulturalki dago eraikia, eta gizarte-egiturek berek legitimatzen eta errepikatzen dute.

Genero-indarkeriaren jatorria emakumeei eta, ondorioz, haien seme-alabei eragiten dien desberdintasunak sortutako egiturazko arazo bat dela onartzeak nabarmentzen du esku-hartzea eta arreta elkarrekin antolatu eta koordinatu behar dituztela genero-indarkeriaren biktima den emakumeari arreta emateko sistemak eta haurrak babesteko sistemak.

Haurren eskubideen ikuspegitik heldu behar zaie genero-indarkeriaren biktima diren haurren eta nerabeen babesari eta arretari. Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak haien eskubideak urratzea esan nahi du, eta ondorio larriak ditu haurren garapenerako. Botere publiko guztien obligazioa da haur horien arreta eta babesa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta ematen zaizkien erantzun instituzional, judizial eta administratiboak haien berriazko beharretarako egokiak direla ziurtatzea.

Elkarrizketatutako instituzio eta erakunde gehienek bilakaera argia izan dute eta inplizituki onartu, haurrak eta nerabeak etxean gertatzen den genero-indarkeriaren biktima direla. Baina arreta eta babesari buruz hasten garenean, biktima-kategoria hori ikusgaitz bihurtzen da; baliabideak nahikoa ez direla antzematen da eta, gainera, ez direla guztiz haur eta nerabeen berriazko beharretara bideratuta egoten, gehiago egoten direla ama bere onera etortzeari begira, eta zenbaitetan, gainera, nahikoa dela pentsatzen da haurra eta nerabea bere onera itzultzeko.

Genero-indarkeriaren biktima den haurren eta nerabeen berriazko beharretara egokitu behar da babeserako eta arretarako erantzun instituzional, judizial eta administratiboa, eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideak bermatu behar dituzte.

Haurren eta nerabeen interes gorenaren ebaluazioak haurrak eta nerabeak bere iritzia libreki adierazteko duen eskubidea errespetatzea esan nahi du, eta iritzi hori haiei eragiten dien gai guztietan kontuan hartzea. Horrenbestez, hurrek eta nerabeek entzunak izateko eta haiei eragiten dien erabakietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dira.

Gaur egungo legeriak ez du onartzen haur eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima izan daitezkeela. Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikok zioen azalpenean seme-alabak biktimatzen jotzen baditu ere, ez die tratamendu juridikorik ematen, eta ez ditu kontuan hartzen haien beharrak, ez eta genero-indarkeriaren biktima gisa merezi duten erantzuna ere.

Indarrean dagoen legeriak genero-indarkeriaren biktima gisa ez onartzeak eragin zuzena du haur eta nerabe horiei ematen zaien arretan, bai gizarte-arreta eta -babeseko sistemek ematen dutenean, bai justizia-administrazioak ematen dien arretan.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren printzipio orokorretan adingabeen interesak defendatu behar direla sartzea –haien interes gorena kontuan hartuta– aurrerapen nabarmena da haien ikusgai jartzeko eta II. Akordioa sinatu zuten erakunde guztiek hala onartzeko. Eta halaxe berresten da erakundearteko talde teknikoak diagnostiko hau egitea bultzatuta.

Diagnostiko honek agerian uzten du II. Akordioa sinatu duten erakundeek biktima diren haurren arretan eta babesean aurrera egiteko interesa dutela. Alde horretatik, jardueraprotokolo espezifikoak jarri behar dira abian detekzio, bideratze, arreta eta haurren babes osoan jarduten duten eremuen arteko koordinazioa hobetzeko.

Nabarmenezkoa da erakundeen jarduerak eta esku-hartzeak arau-esparruaren aurretik ibili direla haur eta nerabeen babesaren alde, eta sarri askotan arau-esparruak trabak jarri izan diela erakundeen jarduerari.

Egoera honetan dauden neska-mutilen arazoaren benetako hedaduraren berri emango duten datu ofizialik ez izatea da sistemaren gabezia handienetako bat, eta horrek biktima ikusezin bihurtzen ditu. Kopuru zehatza zein den ezin jakin izateaz gain, genero-indarkeriaren beraren izaera dela eta ezin baita jakin zenbat emakume dauden egoera horren mende, babes-sistemaren barruan dauden neska-mutilen kopuruari eta egoerari buruzko alderdi oso zehatz batzuk kuantifikatzeko adierazle ofizialak falta dira.

6.2. Gomendioak

Haurren eta nerabeen partaidetza

Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei entzutea eta haien iritzia kontuan hartzea, edozein dela ere haien adina, bai detektatu direnean, bai balioespena egin zaienean, edo bai edozein jarduera-eremutan arreta eman zaienean. Kontuan hartuz, betiere, neska-mutilaren interes gorena.

Zera da hurrek eta nerabeek beren arreta-prozesuan parte hartzea:

- Adin bakoitzera egokitutako tresnak erabiltzea, hurrek informazioa jasotzeko, ulertzeko eta iritzia emateko aukera eta erraztasunak izan ditzaten.
- Haien beharrak zein diren jakitea eta kontuan hartzea, eta haurra arreta-subjektu bihurtzea eta ez babes-objektu.
- Haurren iritzia kontuan hartzea haren bizitzari eta garapen fisiko eta emozional onari eragingo dioten erabaki guztietan; esate baterako, bere guraso erasotzailearekin zer harreman izan nahi duen, zeina bisita-araubidean eta elkargunean geratuko litzatekeen ezarrita den.

Segurtasun-arrazoak tarteko abegi-etxe edo -etxebizitza batera joan behar badute, haurren partaidetzaren barruan egongo litzateke prozesu horrek eragin diezaiekeen estresa aintzat hartzea, eta beraz, kontuan hartu behar du arreta-sistemak, eta hurrek adierazitako gainerako beharrak ere bai.

Justizia-administrazioaren sisteman, berriz, esan nahi du haurrak ikusgai jartzea eta haien eskubideak onartzea, operadore juridikoen (Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitatea, talde psikosoziala) eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, hurrei egiten zaizkien balioespen guztiek beharrezko duten informazio guztia izan dezaten, eta prozesu judizialaren barruan hurrei hitza ematea, funtsezko urrats izango delako haurren interes gorena kontuan hartzen has dadin.

Haurren eta nerabeen iritzia funtsezkoa da, eta kontuan hartu beharko litzateke babes eta zaintza, bisita-araubidea eta elkargunea esleitzerakoan.

Prebentzioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza

Genero-indarkeria prebenitzea funtsezkoa da, desberdintasuna errepikatzen eta, ondorioz, haurren eta nerabeen giza eskubideak urratzen dituzten kultura-ereduen aldaketan eragiteko.

Baliabideak bideratu behar dira genero-indarkeria prebenitzeko eta haren inguruko sentsibilizazioa areagotzeko, haurrak eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima gisa onar daitezten.

Prebentzioa genero-indarkeriak eskubideen ikuspegitik eragiten duen arazo larria ikusgai jartzera bideratu behar da.

Pertsona guztiak nahitaez eskolatu behar direla kontuan hartuta eta gehienak, gainera, ikastetxeetan hezten direla, ezinbestekoak dira ikastetxeak genero-indarkeria prebenitzeko. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak adierazten duen moduan, “eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatuko du, eta nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetu”.

Era berean, ezinbestekoa da zuzenean edo zeharka hurrekin bizi edo haiei laguntzen dien eremu desberdinetako profesionalak genero-indarkeriaren arloan sentsibilizatzea, prebentzioan lagunduko baitu eta, dudarik gabe, erraztu genero-indarkeriaren biktima diren neska-mutilak garaiz detektatzen.

Prebentzioak, sentsibilizazioak eta prestakuntzak neska-mutilak ikusgai jartzen ditu eta genero-indarkeriaren biktima direla onartzen laguntzen dute.

Detektatzea eta bideratzea

Hezkuntza-sisteman eta osasun-sisteman genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak garaiz detektatzeko ahalegin guztia egitea. Osasun- eta hezkuntza-eremuak ezinbestekoak dira

genero-indarkeriaren biktima diren haurrak detektatzeko. Detektatzearekin batera, gizarte-zerbitzuek modu eraginkorrean erantzun beharko lukete eta etengabeko koordinazioan aritu hezkuntza-eremuarekin.

Dauden protokoloak hobetzen badira eta hezkuntza- eta osasun-eremuek gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko protokoloak bultzatzen, positiboa izango da genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen arretarako eta babeserako.

Osasun-eremua

Hezkuntza-arloan bezala, kasuak garaiz detektatzeko, prestakuntza behar dute osasun-eremuko profesionalak ere, bai ospitaletakoek bai ospitalez kanpokoek.

Osasun-eremuko profesionalak sentsibilizatzea, genero-indarkeriaren biktima diren haurrak biktima gisa onartzeko, eta prestakuntza ematea, kasuak detektatzen, laguntzen, jarraipena egiten eta genero-indarkeriaren biktima diren hurrei haren eraginpean egoteak zer ondorio eta arrasto uzten dizkien jakin dezaten, errazago identifikatuko baitituzte kasuak modu horretan osasuneko langileek.

Hezkuntza-eremua

Genero-indarkeriaren aurkako borrokan ikastetxeak izan behar duen zeregin nagusia eta aktiboa bultzatzea. Horrek esan nahi du prebentzioa, sentsibilizazioa, detekzio goiztiarra eta arreta egokia ematea. Halaxe dago ezarrita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatutako *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean*.

Hezkuntzaren arloko profesionalak sentsibilizatzea genero-indarkeriaren biktima diren haurrak biktima gisa onartzeko, eta, horretaz gainera, prestakuntza eta baliabideak ematea (ikasgelan erabiltzeko metodologiak, tresnak, teknikak, adierazle-sistemak) aukera izan dezaten genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak detektatzeko, bideratzeko, laguntzeko, jarraipena egiteko eta genero-indarkeriaren eraginpean egoteak zer ondorio eta arrasto uzten dizkien ezagutzeko.

Alde horretatik, Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean neurri hauek proposatzen dira bestak beste: *“gida bat egitea hezkuntza-komunitateari laguntzeko genero-indarkeriaren adierazpide ezberdinak ulertzen, detekzio goiztiarreko mekanismoak izaten eta indarkeria-tipologia bakoitzari egokitutako jarduera-prozedurak nahiz hezkuntza- eta prebentzio-neurriei buruzko jarraibideak ezartzen*.

Ikastetxeen eta gizarte-zerbitzuen arteko harremana eta koordinazioa hobetzea. Haurrak eta nerabeak genero-indarkeria jasaten ari direla susmatzen bada gizarte-zerbitzuei adierazi behar zaie, jakinaren gainean egon eta laguntzen has daitezten.

Gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeen arteko komunikazioa hobetzea; hartara, gizarte-zerbitzuek konpainia zerbitzua eskaintzen ari zaien familien eta genero-indarkeriaren biktima diren haur

eta nerabeak identifikatu eta ikusi dituzten familien berri eman diezaieke ikastetxeei, esku-hartzea elkarrekin egin eta laguntza ere biek emateko.

Alde horretatik, egokia dirudi “tokiko koordinazio-protokoloek” eskaintzen duten koordinaziorako aukera aprobeztatu beharra dagoela adieraztea eta ikastetxeak protokolo horietan sartzea komeni dela adieraztea, protokolo horiek badituzten herrietan.

Era berean, Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean neurri hauek daude jasota, zeinak garrantzitsuak izan daitezkeen dauden baliabideen arteko koordinaziorako:

- Sailean lantalde bat sortzea, Ikuskaritzak, Berritzeguneei eta berdintasun-teknikariari osatua, Erakunde arteko II. Akordioaren hezkuntzaren eremuko jardura protokoloa berrikusteko eta hobetzeko.
- Protokoloak ikastetxe bakoitzera egokitzea, genero-indarkeriako egoeratan berehala eta egoki erantzuteko, ahaztu gabe toki-protokoloekin koordinatzea, baldin badaude, eta, horrela, gainerako alorrekin/erakundeekin beharrezkoak diren mekanismoak antolatzea.

Genero-indarkeriaren biktime diren hurrek eta nerabeek segurtasun-arrazoiengatik ikastetxez aldatu behar badute, ikastetxe hartzaileak haurrak zer egoera bizi izan duen jakin behar luke, eta, horrenbestez, harrerak genero-indarkeriaren biktime diren haur eta nerabeen egoera eta ezaugarri espezifikoak hartu behar lituzke kontuan. Harrera horretan, arreta berezia jarri behar litzaike trantsizioari, traumatikoa izan baitaiteke haur eta nerabeentzat.

Nahitaezko eskolatzeko-adinean ez dauden haur eta nerabeentzako lekua bermatzea eta matrikulazioa arintzea.

Jakinarazpenetarako eta jarduteko protokolo bakar bat egitea garrantzitsua den eta horretarako beharrik badagoen aztertzea, bat hezkuntzaren arlorako eta beste bat osasun-arlorako. Protokolo horretan argi eta garbi ezarri beharko litzateke alor bateko eta besteko profesionalak nola jardun behar duten.

Gizarte-eremua

Balioespen-tresnak aztertzea eta hobetzea. Balorak ez luke tresna bakarra izan behar; tresna psikologiko batzuk eta beste eskala batzuk (gurasoen gaikuntza) ere izan behar lituzke, indarkeriaren eragina balioesten laguntzeko, eta modu horretan diagnostiko hobea lortzeko.

Detektatzeko eta kasuak gizarte-zerbitzuetatik arreta-baliabideetara bideratzeko protokoloak hobetzea.

Fiskaltzarekin, indarkeriaren arloko epailearekin, Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitatearekin eta Ertzaintzarekin batera egiten den lana hobetzea, eta prozesu osoan genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen seme-alabak balioestea kontuan hartzen duten protokoloak egitea.



Polizia-eremua

Polizia-atestatuetan nahiz salaketetan haurrak ikusgai jartzea, hori baita justizia-administrazioa sartzeko ateetako bat. Haurrak eta nerabeak zer egoeratan dauden, zer portaera eta erreakzio dituzten jaso beharko litzateke atestatu eta salaketetan.

Genero-indarkeriaren biktima den emakumeari ematen zaion laguntza eta aholkularitza hobetzea; hartara, prozesu judizialak beregan eta haur eta nerabeengan zer ondorio izango dituen jakin eta ulertuko duelako, eta horrek lagunduko diolako salaketa jartzea erabakitzen, bere seme-alabak salaketan sartzea edo ez sartzea erabakitzen.

Polizien prestakuntza hobetzea eta haurren arloko berariazko prestakuntza ematea, genero-indarkeriaren biktima den emakume baten ardurapean seme-alabak dauden kasuetan erantzun egokia eman ahal izateko.

Larrialdiko gizarte-zerbitzuekin egiten den koordinazioa hobetzea ere egokia litzateke, biktima diren emakumeen seme-alabei konpainia egin diezaieten, beharra ikusten denean.

Komeniko litzateke emakume biktimez zein haien seme-alabez ahalik eta baldintzarik onenetan arduratzeko eremu edo areto egokiak izatea ertzain-etxeek.

Gizarte Arreta

Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dien sisteman eta haurren babeserako sisteman balioesten eta artatzen dira.

Eskura dauden gizarte-baliabideak azaldu eta balioetsi ditugunean ikusi denez, zenbait erakundetan bi sistema horiek elkarrekin egiten dute lan; beste batzuetan, ordea, elkarlan hori koordinazio-bilera batzuetara mugatzen da, eta beste zenbaitetan, berriz, koordinazio-lanik ere ez da egiten.

Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuetarako, haurren zerbitzuek eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako zerbitzuek esku hartzeko irizpideak bateratzea, esku-hartzearen helburua eta adingabearen interes gorenaren irizpidea eta, aldi berean, genero-berdintasunaren irizpidea parteka daitezten.

Koordinazioa hobetuta, errazago egingo da denen arteko balioespena, bi sistemen ikuspegiak integratuko baitira haurren arretan, eta hobetu esku-hartzea, eta, ondorioz, erraztu genero-indarkeriaren biktima diren neska-mutilak bere onera etortzea.

Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeek erreferentziazko profesional bakarra eduki behar dute; profesional horrek haur eta nerabeei dagokien alderdi guztiak hartu beharko lituzke kontuan, hala nola psikologikoa, hezkuntzakoa, osasunakoa, epaitegiekiko koordinazioa eta abar.



Genero-indarkeriaren biktima diren haurren arretarako programa espezifiko bat ezartzea. Programa espezifiko horretan haurrek zer kalte jasan duten balioetsi behar da, haien adina eta beste zenbait alderdi, hala nola emozionala, soziala eta jokabidekoa, kontuan hartuta. Informazio-iturri bat baino gehiagotatik jaso behar da informazioa balioespen hori egiteko. Esku-hartzea kaltea arintzeko izan behar da, eta hezkuntza-arloa nahiz psikoterapeutikoa har ditzake.

Esku-hartzeko prozesuan haurren eta nerabeen partaidetza hobetzea, tresna eta teknika guztiak erabilia (musika-terapia, arte-terapia, kontakizun-terapia, psikomotrizitatea, joko-terapia erdizuzendua), jasan duten kalteagatik bizi duten sufrimendua errazago adieraz dezaten.

Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta emateko erabiltzen den sistemak, hau da, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko sistemaren bidez edo haurren arretarako sistemaren bidez ematen zaien arreta, ñabardura desberdinak izango ditu arreta prozesuan guraso erasotzailea sartzeko komeni den edo ez erabakitzerakoan.

Amarekin lan egitea genero-indarkeriaren biktima izateari utzi eta bere onera etortzeko, eta, beharrezkoa den kasuetan, dauden baliabide guztiak jartzea haren eskura bizitako indarkeria-egoerak amaren eta seme-alaben arteko lotura afektiboak kaltetu ez ditzan.

Genero-indarkeriaren biktima diren hurrekin banaka lan egitea, bai eta taldean ere antzeko egoerak bizi izan dituzten beste haur eta nerabe batzuekin.

Haur, nerabe eta haien amekin batera lan egitea.

Arretaren erdigunean egon behar dute haur eta nerabeek, eta, hortaz, ezinbestekoa da adi egotea eta aitak edo amak haur eta nerabeak tresna gisa erabil ez ditzaten ahalegintzea.

Laguntza edozeinek emanda edo edonola emanda ere, haurren eskubideetan oinarritu behar da, haurraren interes gorena eta genero-berdintasuna zaintzea kontuan izanik beti.

Erasotzailearekin egin beharreko esku-hartzea hobetzea: banakako esku-hartzea behar du, eta hor heziketa-prozesua, terapeutikoa eta prozesuaren jarraipena sartu behar dira.

Justizia Administrazioa.

Haurren Eskubideen Konbentzioan onartutako eskubideak behar bezala aplikatzea eta betearaztea emakumeen eta haren seme-alaben aurkako indarkeria-kasuetan hartzen diren erabakietan.

Tartean haurrak dauden kasu bakoitzaren baldintzak zehatz balioestea eta banan-banan, haurraren interes gorena zehazteak bidera ditzan haiei eragingo dien neurri eta ebazpen judizial guztiak, bai zibilak bai penalak.

Haur eta nerabeei arreta ematen dien eta haiek babesten dituzten erakundeekin koordinazioa hobetzea, eta, bereziki, gizarte-zerbitzuekin, alde batetik, kasuak gizarte-zerbitzuetara bidera daitezzen salaketa bat edo babes-agindu bat dagoenean eta, horrela, arreta- eta babes-

baliabideak abian jar daitezzen, eta, bestetik, arreta-zerbitzuan egon daitezkeen zailtasunak ikusgai jar daitezzen eta genero-indarkeriaren biktima diren haurrengan modu negatiboan eragin dezaketan erabakiak saihestu daitezzen.

Genero-indarkeriaren biktima den haurrak berriz ez biktimizatzea, instantzia polizial eta judizialean elkarrizketak errepikatzeari utzita eta zeregin horietarako teknologia erabilita, hala nola elkarrizketak grabatzea, behin baino gehiagotan prozesu beretik pasa ez daitezzen.

Jarduera judizialen denborak gutxitzea edo egokitzea, haurrak behar bezala balioesteko aukera izateko eta errutinaz denboran mugarik gabe luzatzen diren kautelazko neurriak ez hartzen ahalegintzeko.

Haur eta nerabeei balioespen eta azterketak behin eta berriz ez egiten saiatzea.

Era berean, gizarte-zerbitzuek egindako balioespenak hartu behar dituzte kontuan operadore juridikoek beren balioespenetan (talde psikosozialek eta Auzitegiko Balorazio Integralerako Unitateak), genero-indarkeriaren biktimak diren haur eta nerabeen ongizatea bermatuko duen neurria errazago har dadin. Edo balioespena operadore juridikoek egiten badute, gizarte-zerbitzuek balioespen horren berri izan behar dute, beste balioespen eta azterketarik egin beharrik ez izateko.

Haur eta nerabeen arretan espezializatuta dagoen talde batek egin behar du balioespena, eta genero-indarkeriak haur eta nerabeengan zer kalte eragiten duen balioesteko adierazle eta tresna espezifikoak erabili behar dituzte.

Justizia-administrazioko profesionalak genero-indarkeriaren eta indarkeria horrek haurrengan duen eraginaren inguruan sentsibilizatzea eta alor horretako prestakuntza ematea, ezinbestekoa baita haur eta nerabeak genero-indarkeriaren biktima diren jakiteko eta haiei arreta emateko.

Gurasoek, batez ere dibortzio prozesuetan, haur eta nerabeak erabil ditzaketenez, arreta berezia jartzea eta zainketa egitea horrelakorik gerta ez dadin. Erabilera hori beste indarkeria-irizpide batekin pareka daiteke (BALORA tresnak tratu txar psikiko gisa jasotzen du, eta haur edo nerabeak duen babesgabetasun-egoera balioestea komeni izaten da).

Urruntze-neurriak hautsiz gero, arreta jarri behar zaio tartean egon daitezkeen haur eta nerabeen arrisku-egoerari; baina egungo prozedura ere hobetu beharko litzateke, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren jardueretan eragina izan dezan eta kausa horri lotu dakion.

Elkargunea

Familia-elkargunek sistema judizialari begira zer zeregin duten aztertzea. Azterketa horrek berekin dakar haur eta nerabeen iritzia beti kontuan hartzea, eta kasurik kasu balioestea, kaltea eta haurren bizitzako testuinguru guztiak sartuz balioespen horretan, bisita-araubidea eta elkargunea ezartzea komeni den edo ez erabaki aurretik.



Banaka, kasurik kasu egiten den azterketak “berrogeialdia” ezartzea eragin lezake eta bisita-araubidea ez dela komeni erabakitzea, edo, aldiz, bisitak beti elkargunean eta gainbegiratuta egin behar direla erabakitzea.

Elkargunea edo bisita-araubidea ezarri aurretik guraso erasotzailearekin landu beharko litzateke egoera, zeinak esan nahi duen eragindako kaltea konpondu beharko lukeela.

Elkarguneak genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeentzat zer ondorio kaltegarri izan dezakeen beti kontuan izatea eta balioestea.

Neska-mutilen interes gorena kontuan izatea, elkargunea eta bisita-araubidea ezarri behar den unean eta guraso erasotzailetik banandu behar den kasuan.

Elkarguneen eta epaitegien arteko koordinazioa hobetzea. Epaileak informazio garrantzitsu guztia bidali behar lieke hezitzaileei, hala nola peritu-txostenak edo familia-elkargunea agintzeko epailea zertan oinarritu den adierazten duen guztia. Lana erraztuko die elkarguneetako profesionalei informazio horrek, zer alderdi zaindu eta gainbegiratu behar duten jakingo baitute.

Era berean, haurren interes gorena eta parte-hartzea kontuan hartuz, familia-elkarguneetako hezitzaileek bidalitako txostenak ere hartu beharko litzukete kontuan epaitegiek, eta berehala erantzun txosten horiei.

Sarrera- eta irteera-ordutegetan kontu berezia izatea, aita erasotzaileak eta ama biktimak elkarrekin topo egin ez dezaten, genero-indarkeriaren biktima diren emakumea, haurra eta nerabea babestua egoteko.



BIBLIOGRAFIA

Arau-esparrua

Nazioarteko legedia

- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroan onartua
- Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979ko abenduan onartua, Espainiak 1984an berretsia
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena, Nazio Batuk, 1993
- Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, Emakumeei buruzko Pekingo IV. Konferentzia, 1995

Europako legedia

- Haurren Eskubideen Europako Gutuna, Europako Parlamentuarena, 1992ko irailaren 21a
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategia 2010-2015. Europako Batzordeak 2010eko irailean onartua. “Duintasuna, osotasuna eta indarkeria sexistaren amaiera” ardatza.
- Ministro Batzordeak estatu kideei egindako CM/Rec (2007) Gomendioa, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia aintzat hartzeari buruzkoa

Estatuko legedia

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa
- 148/2007 Dekretua, abenduaren 5koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen
- 1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratze-programa onartzen duena
- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, pertsona transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, adingabeen babes juridikoari buruzkoa



— Kode Zibila

Euskal Autonomia Erkidegoko legedia

— 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa, Eusko Legebiltzarrarena

— 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa

— 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

— 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa

— 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte-zerbitzua

— 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena

— 148/2007 DEKRETUA, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena

— 2007ko azaroaren 29ko AGINDUA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena

— 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte-zerbitzua

— 124/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena

— 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, Eusko Legebiltzarrak onartua

— 2006ko urriaren 4ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa

— 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoei buruzkoa

Genero-indarkeriaren biktima diren Euskadiko haurren eta nerabeen arretari buruzko diagnostikoa

Erreformatzeko prozesuan dagoen legedia



Honako legedi hau erreformatzeko prozesuan dago, eta garrantzi berezikoa izango da, norabide-aldaketa ekar lezakeelako genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen aitorpen eta arretaren arloan

— 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa

— 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, adingabeen babes juridikoari buruzkoa

— Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretua (2014ko urtarrileko zirriborroa)

— Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) Biktimen Estatutuari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektuaz egindako txostena, adingabeak amen aurkako genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzearen alde egiten duena

— Kode Zibila: onartutako sexu-harremanetarako gutxieneko adina eta ezkontzeko gutxieneko adina igotzea

— 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, prozedura zibilarena

— 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, botere judizialarena

— Erregistro Zibilaren Legea (1957)

— 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazienteen autonomia arautzen duena

— Langileen Estatutuaren Legea

— Prozedura Kriminalaren Legea (2012an eguneratua)

Save the Children erakundearen txostenak

— Save the Children. 2006. Genero-indarkeriaren biktima diren haurrentzako arreta

— Save the Children. 2008. Familia barruko genero-indarkeriaren biktima diren haurrentzako arretari buruzko eskuliburua

— Save the Children. 2011. Daphne txostena. Genero-indarkeriaren biktima ez da izaten bakarra.

— Save the Children. 2012. Haurrak eta justizia, eskubide-kontu bat.

— Save the Children. 2012. Euskadiko txostena. Genero-indarkeriaren biktima ez da izaten bakarra.

Planak eta akordioak



- Haur eta Nerabeentzako II. Plan Estrategiko Nazionala, 2013-2016. Espainiako Gobernu
 - EAEn Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana, 2011-2015. Eusko Jaurlaritza
 - Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa. 2009. Emakunde.
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana, 2013. Emakunde.
 - Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana. 2013. Eusko Jaurlaritza
- Beste dokumentu, txosten, azterlan eta artikulatu batzuk
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gaineko Erakundeen Jokabideari Buruzko Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak II. Txostena. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia. 2013.
 - Babesik Gabeko Haurrekin Esku Hartzeko Eskuliburua. Bizkaiko Foru Aldundia
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako Gipuzkoako Plana. 2008. Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Emakumeen aurkako indarkeria Gipuzkoan eta hura eragiten dutenak. 2011. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua.
 - Deribazio judizialaren bidez familia elkarguneen erregulazioa eta funtzionamendua. Arartekoaren 1/2013 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 18koa
 - Haur eta nerabeen egoeraren azterketa haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik. 2009.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak Aragoi. Soziologia Juridikoko Laborategiak egina Aragoiko Gobernuarentzat. 2010-2012
 - Emakumeenganako indarkeriari toki-eremuan aurre egiteko esku-hartze integralerako proposamena. 2012. Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa
 - Violencia de Género. María Luisa Berrocal eta Montserrat Pineda Lorenzo.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku hartzeko gida. Kanarietako Berdintasun Institutua. 2012.
 - Haurren aurkako indarkeriari buruzko txostena. 2012. ANAR fundazioa



- Indarkeria matxistadun egoeretan haur eta nerabeekin esku hartzea Bartzelonako Udaleko gizarte-zerbitzuen sistema publikotik. 2012. Bartzelonako Udala.
- Medidas de protección al menor en los casos de violencia de género. 2013. Francisca Ramón Fernández, Valentiako Unibertsitate Politeknikoko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra
- La violencia de género como causa de maltrato infantil. 2006. A. Sepúlveda García de la Torre